

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Euskal Autonomia  
Erkidegoaren Administrazio  
Orokorren Kontua**

**Cuenta de la Administración  
General de la Comunidad  
Autónoma de Euskadi**

**2013**





## AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. IRITZIA.....	10
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	10
II.2 Administrazio orokorraren kontuari buruzko iritzia.....	11
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	12
III.1 Aurrekontuak eta kontabilitatea.....	12
III.2 Langileria gastuak.....	13
III.3 Diru-laguntzak.....	13
III.4 Kontratazioa.....	15
III.4.1 Aurreko ekitaldietan esleitutako espedienteak.....	15
III.4.2 2013an esleitutako espedienteak.....	17
III.4.3 Kontratu txikiak.....	17
III.5 Abalak.....	18
III.6 Beste alderdi batzuk.....	18
IV. FINANTZA ANALISIA.....	19
V. 2013-KO EKITALDIKO KONTUAK.....	26
VI. EAE-REN ADMINISTRAZIO OROKORRAK “HIRIKO” PROIEKTUARI EMANDAKO LAGUNTZA ETA DIRU-LAGUNTZEN ANALISIA, 2010-2013.....	33
VI.1 Sarrera.....	33
VI.2 Emandako diru-laguntzak.....	37
VI.3 Ondorioak.....	40
ALEGAZIOAK.....	43
BOTO PARTIKULARRA.....	71



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

<b>ABREVIATURAS .....</b>	<b>73</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN.....</b>	<b>75</b>
<b>II. OPINIÓN.....</b>	<b>76</b>
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	76
II.2 Opinión sobre la cuenta de la administración general .....	77
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b>	<b>78</b>
III.1 Presupuestos y contabilidad.....	78
III.2 Gastos de personal .....	79
III.3 Subvenciones.....	79
III.4 Contratación .....	81
III.4.1 Expedientes adjudicados en ejercicios anteriores.....	81
III.4.2 Expedientes adjudicados en 2013.....	83
III.4.3 Contratos menores .....	84
III.5 Avals.....	84
III.6 Otros aspectos.....	84
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>	<b>86</b>
<b>V. CUENTAS DEL EJERCICIO 2013 .....</b>	<b>93</b>
<b>VI. ANÁLISIS DE LAS AYUDAS Y SUBVENCIONES CONCEDIDAS AL PROYECTO “HIRIKO” POR LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA CAE 2010-2013 .....</b>	<b>100</b>
VI.1 Introducción .....	100
VI.2 Subvenciones concedidas.....	104
VI.3 Conclusiones .....	108
<b>ANEXOS .....</b>	<b>111</b>
A.1 Normativa aplicable .....	111
A.2 Prórroga presupuestaria.....	112
A.3 Modificaciones presupuestarias .....	113
A.4 Gastos de personal .....	114
A.5 Gastos de funcionamiento.....	115
A.6 Transferencias y subvenciones corrientes y de capital.....	116
A.7 Inversiones reales.....	118
A.8 Variación de activos financieros (gastos) .....	120
A.9 Tasas y otros ingresos .....	122
A.10 Ingresos por transferencias corrientes .....	123



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

A.11	Ingresos por transferencias de capital .....	125
A.12	Variación de activos financieros (ingresos).....	126
A.13	Residuos pendientes de cobro y pago .....	126
A.14	Tesorería.....	127
A.15	Operaciones extrapresupuestarias.....	128
A.16	Cuenta general de la deuda pública.....	131
A.17	Avales concedidos .....	133
A.18	Créditos de compromiso.....	135
A.19	Contratación .....	136
A.20	Análisis de subvenciones.....	144
A.21	Contabilidad pública.....	145
A.22	Gastos e ingresos territorializados.....	146
<b>ALEGACIONES .....</b>		<b>151</b>
<b>VOTO PARTICULAR .....</b>		<b>179</b>

Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzaren 28a

Vitoria-Gasteiz, 28 de mayo de 2015



## LABURDURAK

GKE	Gobernu Kontseiluaren Erabakia
AFYPAIDA	Automozioiko industri eta kirol jarduerak indartu eta sustatzeko elkartea
GGLA	Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza
IEB	Inbertsioen Europako Bankua
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
BERC zentroak	Oinarrizko eta Bikaintasunezko Ikerketa Zentroak
FPEK	Finantza Publikoen Euskal Kontseilua
DOUE	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
ETS	Euskal Trenbide Sarea
EEAKF	Erregimen Erraztuko Arrisku Kapitalaren Funtza
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko zerga
FEI	Finantzen Euskal Institutua
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
KEB	Kontrol Ekonomikoko Bulegoa
EEP	Enpleguaren Eskaintza Publikoa
AKPP	Baldintza Administratibo Berezien Agiria
EAEKPP	Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontabilitate Publikoko Plana, 2012ko ekainaren 25eko Agindu bidez onartutakoa, Ekonomia eta Ogasun Sailburuarena.
BPG	Barne Produktu Gordina
ZTBES	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea.
APKLEO	1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzeko dena.
SOCADE, S.A.	Garapenerako Euskadiko Kapital-Sozietatea-SOCADE, S.A.
ISEB, S.A.	Industriaren Sustapen eta Birmoldaketarako Sozietatea, S.A. eta 2011ko ekainaren 6tik aurrera, Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, S.A.
EBJA	Europar Batasuneko Justizia Auzitegia
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duena.
EAEHONALTB	1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

EAATB	1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu araubidearen gaietan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartu eta EAEn Fundazio eta Partzuergoei ezargarria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
HKEE	Herri Kontuen Euskal Epaitegia
EHU	Euskal Herriko Unibertsitatea
VIKESA	Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, S.A. - Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.





## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Kontuaren 2013ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txosten hau mamitu du, epaitegia arautzen duen 1/1988 Legeak agindutakoari eta Lanerako Urteko Programak ezarritakoari jarraiki.

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: ezargarria den arautegia honako alor hauetan betetzen dela egiaztatzea: aurrekontua, zorpetzea, finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak, diru-laguntzak eta laguntza publikoak ematea eta zuzenbide publikoko diru-sarrerak.
- Kontularitzakoak: Kontu Orokorra ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu den aztertuko dugu.
- EAEren Administrazio Orokorraren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi ere, azaleratutako hutsak "Kudeaketaren alderdiak eta Gomendioak" idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.
- Berebat, berariazko atal bat gehitu dugu, EAEren Administrazio Orokorrak "Hiriko" ibilgailu elektrikoaren proiektuari emandako laguntzen azterketa egiten duena, sorreratik (2010) 2013ko ekitaldira bitartean. "Hiriko" proiektua Etorgai programaren barruan jaso zen; programa honen helburua laguntzak ematea da, sektore estrategikoetan industria-ikerketa eta garapen esperimentaleko proiektuak egitea finantzatzeko eta I+D+i-n lankidetzan publiko-pribatua sustatzeko, Euskal Herriko ekonomian trakzio-eragina izan dezaten.



## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

**1.-** Luzatutako aurrekontuaren hasierako ordainketa kredituek 107,1 milioi euro inguruko zenbatekoa besarkatzen dute, EAATBren 128. artikulua b) atalean araututako aurrekontu luzapenaren erregimena urratuz jasotakoa. Kopuru hori honako kapitulu hauetako gastu kredituek osatzen dute: 2. kapituluak (3,2 milioi euro); 4. kapituluak (16,9 milioi euro); 6. kapituluak (30,6 milioi euro); 7. kapituluak (27,9 milioi euro) eta 8. kapituluak (28,4 milioi euro).

**2.-** 6 milioi euroan esleitutako kontratu batean (18. espedientea), 2,6 milioi euroren obra osagarriak egin dira publikotasunik gabeko prozedura negoziatua baliatuta (70. espedientea); ez da, baina, SPKLTBren 171 b) artikulua agintzen duen moduan, ustekabeko inguruabarren izatea justifikatu.

**3.-** Kontratu batean (72. espedientea), 0,7 milioi euroren gehieneko aurrekontuarekin esleitutakoan eta publikotasunik gabeko prozedura negoziatuari jarraiki izapidetutakoan, SPKLTBren 172 a) artikulua oinarri hartuta, ez da espedientean justifikatu esleipenduna denik zerbitzu hori eman dezakeen bakarra, eta honenbestez, lehiaketa bideratzeko ezintasuna dagoela.

**4.-** Guztira 0,4 milioi euroan esleitutako zazpi kontratutan (60, 61, 62, 63, 64, 68 eta 69 espedienteak), eta ondasun eta zerbitzu erosketen 164 kontratu aztertzean, guztira 2 milioi euroren zenbatekoan esleitu eta ondotik adierazitako sailei dagozkienetan: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura (75), Herri Administrazioa eta Justizia (33), Segurtasuna (27), Lehendakaritza (16), Osasuna (12) eta Enplegu eta Gizarte Politikak (1) kontratuaren xedea oker zatikatu dela edo ez dela dagokion kontratazio espedientea izapidetu atzeman dugu.

**5.-** Gobernu Kontseiluak, EAEren Ekonomia eta Kontabilitatearen Kontrolerako 14/1994 Legearen 24.4 artikuluan aurreikusitako aparteko prozeduraren bitartez, 2013ko ekitaldiko gastuen aldeko fiskalizazio juridiko-ekonomikoa hartu du bere gain, 54,5 milioi euroren zenbatekoan, aurrez Ekonomia Kontrolerako Bulegoak (EKB) kontrako txostena jaulkia zuela. Gastu hauek honako hauei dagozkie: 0,9 milioi euroren hiru obra kontratari; 29,6 milioi euroren 48 zerbitzu kontratari; 23,9 milioi euroren sei hornidura kontratari eta 0,1 milioi euroren kudeaketa-mandatu bati. Ez-betetze nagusiak publikotasun eta lehia printzipioak ez betetzea eta behin epea iraungia zela zerbitzu ematen jarraitzea izan dira. (Ikus A.19)

**6.-** Halaber, Administrazio Orokorrek 3,8 milioi euroren diru-laguntzak eman dizkie 12 onuraduni Gobernu Kontseiluaren Erabaki bitartez; onuradun horiek aurreko bi ekitaldietakoren batean ere helburu berbererako diru-laguntza zuzenak jaso zituzten.

8,2 milioi euroren zenbatekoa egin duten beste lau diru-laguntzatan ere, ez da xedapen orokorra baliatuta deialdi publikoa egiteko ezintasuna justifikatu. (Ikus A.20)

Apartekotasuna eta deialdi publikoa egiteko ezintasuna justifikatzea, diru-laguntza zuzenak emateko EAEHONALTBren 49.7 artikulua eskatzen dituen betekizunak dira.



Gure iritzira, EA Eren Administrazio Orokorrak, aurreko paragrafoetan aipatutako salbuespenak alde batera, zuzentasunez bete du 2013ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege araudia.

## II.2 ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUARI BURUZKO IRITZIA

1.- 20/2012 Errege Dekretu-legea betez ez zen 2012ko abenduak aparteko soldata ordaindu, 92,7 milioi euroren zenbatekoan. EA Eren Administrazio Orokorrak ez du Urteko Kontuen Oroitidazkian horren erabilgarritasunaren mugaketei buruzko informaziorik eman. (Ikus A.4).

Gure iritzira, 1. paragrafoan jasotako ez-betetzea eta 2013ko Aurrekontuaren Likidazioan 1etik 6ra bitarteko Oharretan adierazitakoa aintzat hartuta, EA Eren Administrazio Orokorraren itsatsitako kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2013ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa erakusten dute.

Gure iritzian eraginik izan gabe, azpimarratu nahi dugu 2014ko uztailaren 23an, Estatuarekiko alde biko printzipioak eta Euskal Herriko erakundearen artean finantza lankidetzari buruzko printzipioak ezarriz, FPEK-k aho batez erabaki duela EBJAk 2014ko maiatzaren 13an Espainiako erreinuari ezarritako 30 milioi euroren zehapenaren jasan arazpenak duen finantza inpaktuari aurre egitea. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak aparteko aurrekontuko ekarpena egingo du, 21 milioi eurorena; ez du horrek, ordea, inola ere europar araudia ez betetzeagatik inongo erantzukizunik bere gain hartzen duela esan nahi.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honek jasotzen ditu bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioen betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

#### III.1 AURREKONTUAK ETA KONTABILITATEA

##### Aurrekontu luzapena

**3.1.1** Luzatutako aurrekontuaren zamak bi programa sortu berri barne hartu zituen “Erakunde harremanak” izenekoa bat, hasierako kreditua 28,6 milioi eurorena zuena eta “Justizia eta Giza eskubideak” izenekoa bestea, hasierako kreditua 4,5 milioi eurorena zuena. Gainera, “Berrikuntza publikoa” eta “Herritarrei arreta” programak, bien artean 7 milioi euroren zenbatekoa zutenak, “Berrikuntza eta Administrazio elektronikoa” programan bildu ziren. Eragiketa hauek EAATBren 70 eta 71 artikuluetan ezarritakoa saihestuta gauzatu dira, zeinak Gobernu Kontseiluak alde aurretik baimendu behar dituela dioen eta sortze berriko kredituen kasuan, hasierako zuzkidura kreditu transferentzien erregimena baliatuta egin behar dela dioen. Orobat, ez zaio Eusko Legebiltzarrari jakinarazi, EAATBren 74.2 artikulua agintzen duen moduan.

**3.1.2** Luzatutako aurrekontuak hasierako konpromiso kredituetan 784,8 milioi euro inguruko zenbatekoa barne hartzen du, aurreko ekitaldian amaitutako jardueri zegokiena edo konpromiso gehiago hartzea beharrezkoa ez zutenena. Gainera, Administrazioak aztertu egin behar zukeen zein alde egon zitezkeen 2013ko ekitaldiari zegozkion urtekoetan lehenagoko ekitaldietan hartutako konpromisoen eta luzatutako ordainketa kredituen artean, egiaz luzagarri diren ordainketa kredituen zenbateko zuzena zehaztu ahal izateko.

##### Beste alderdi batzuk

**3.1.3** 2013ko ekitaldiko aurrekontuaren egikaritzak ez du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saileko hiru diru-laguntza lerroen erregistroa barne hartu, 9,2 milioi euroren zenbatekoan, ez eta Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun saileko Teknologia programako sei diru-laguntza lerro ere, 68 milioi euroan. Laguntzen deialdiak 2013an zegoen kreditu kontsignazioaren arabera egin ziren eta horien erregistroa 2014an gauzatu da.

**3.1.4** Egoeraren Balantzeak ez du ibilgetuko hainbat kontu-sail osatzen dituzten ondasun guztien banakako xehapenik, hala nola, instalakuntza teknikoak, ekipo informatikoak, makineria, lanabesak eta altzariak, aplikazio informatikoak, e.a. Modu honetan erregistratutako zenbatekoa, guztira, 257,7 milioi euro da.

**3.1.5** VISESA sozietate publikoari emandako diruzaintzako aurrerakinak aurrekontuz kanpo guztira 23,5 milioi euroan erregistratu dira eta sozietatearen egoitzaren finantzaketa iragankorrerako eta saltzeko dauden babes ofizialeko etxebizitzaren izakinetarako baliatu dira; aurrerakin horiek urtero berritzen dira. Aurrerakinak hainbatean behin berritzeak esan nahi du finantzaketa behar iraunkorrak daudela. (Ikus A.15)



Berritze horiei etorkizunean eusten bazaie, beharrezkoa izango da dagozkion aurrekontu kredituak zuzkitzea eta eragiketa hauetatik eratorritako obligazioak erregistratzea.

**3.1.6** EAEnen Sektore Publikoaren Aurrekontu Orokorren eta Urteko Kontuen likidazioan jasotako informazioak EAEnen Ekonomia Kontrol eta Kontabilitateko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 8. artikulua eta EAATBren 124. artikulua gutxiengo izaerarekin eskatzen duten informazioa jasotzen du. Gomendagarria litzateke EAEnen sektore publikoa osatzen duten erakunde multzoaren egoera bateratuak barne hartzea, horien guztien ekonomia-, finantza- eta ondare-egoera, eragiketen emaitza eta aurrekontuen likidazioa erakutsiko dutenak.

## III.2 LANGILERIA GASTUAK

### Lanpostuen Zerrendak (LZ)

**3.2.1** Indarreko Lanpostu Zerrendek ez dituzte 2013ko ekitaldian aurrekontuko zuzkidura zuten guztira 1.423 plaza barne hartzen, ondoko xehapenaren arabera:

LANGILERIA MOTA	PLAZA KOP.
Justiziako langileria .....	1.175
Hezkuntza Saileko lan kontratupeko langile ez irakaslea .....	93
Nekazal eta Jabetza Ganberetatik datorren langileria .....	2
Hainbat sailetako bestelako langile funtzionarioa .....	117
Tokiko farmazialari sanitarioak eta Osakidetzatik datozenak .....	10
Beste batzuk .....	26
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.423</b>

Justizia saileko langileen LZk onartzea EAEnen Administrazio Orokorren egitekoa da, aldez aurretik Botere Judizialaren Kontseilu Orokorren aldeko txostena jasota, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 522 artikulua agintzen duen legez.

## III.3 DIRU-LAGUNTZAK

### Diru-laguntza zuzenak

**3.3.1** EAEHONALTBk Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian lehiara meneraturik emandako diru-laguntzen zerrenda argitara emateko obligazioa ezartzen du; ordea, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorren arabera, Gobernu Kontseiluaren Erabakiz zuzenean emandako haiek ere argitaratu behar lirateke.

**3.3.2** A.20 eranskinean jasotako diru-laguntzak aztertu ditugu eta honako alderdi hauek dira azpimarragarriak:

- Aztertu ditugun diru-laguntzetarik bitan, guztira 0,3 milioi eurorenak, frogagiriak aurkeztu aurretik konturako ordainketa erregimena ezarri da. Aldez aurretik egindako finantzaketa honek aparteko izaera behar du izan eta diru-laguntzari lotutako ekintzak gauzatu ahal



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

izateko beharrezkoa dela justifikarazi gabe eman da, EAEHONALTBren 49.11 artikuluan ezarritakoari jarraiki.

- Aztertutako diru-laguntzetarik bitan, 7,3 milioi euro egin dutenetan, laguntzak onuradun ezberdinei esleitu zaizkie, banaketarako baliatutako irizpideak egiaztatu ez direla.
- Aztertu diren diru-laguntzetatik bostetan diru-laguntza justifikatzean honako huts hauek azaleratu dira:

Lanbide Heziketako Zentroei Lehen-Aukera izeneko programa abiarazteko emandako diru-laguntza oker kitatu da, izan ere, emakida erabakian aurreikusi gabeko gastuak onartu dira eta beste hainbat huts egin dira; horrek guztiak, 10 mila euro inguru gehiagoko diru-laguntza ordaintzea eragin du.

EHUK 2012ko ekitaldian 3 milioi euroren diru-laguntza jaso zuen Zabalduz Programa txertatzeko (2012-2015) eta 0,3 milioi euroren konturako ordainketa egin zen. 2013ko ekitaldian milioi bat euroren beste ordainketa bat egin da, naiz 2012 eta 2013ko ekitaldietako gastuen kontzeptuan justifikatutako kopurua 0,5 milioi eurorena izan zen.

BERC Zentroei 6,1 milioi euroren diru-laguntza eman zitzaion; justifikazioa, baina, ez da emakida erabakian jasotakoaren arabera egin. Zehatzago esanda, bederatzi onuradunetarik zazpi jardueren oroitidazkia aurkeztu dute helburuen betetze txostena aurkeztu beharrean eta onuradun izan diren bederatzi zentroetatik bakar batek ere ez ditu ordainagiriak edo justifikazio-agiriak aurkeztu eta gastu zerrenda onartu zaie justifikazio modura. Halaber, hiru kasutan kanpoko auditoreak zentroaren jarduera ez ekonomikoaren zenbatekoari buruz jaulkitako ziurtagiria edo 2013ko ekitaldian beste erakunde batzuetatik jasotako laguntzei buruz legezko ordezkariak jaulkitako ziurtagiria ez ziren 2014ko lehenengo seihilekoan aurkeztu, emakida erabakiak agintzen zuen moduan.

Tokikom SLri emandako 0,1 milioi euroren diru-laguntzan, Gizarte Segurantzako eta Ogasuneko ziurtagiriak ez zeuden egunean diru-laguntzaren ordainketa egin zen unean. Gainera, emakida erabakiak zioen gastuaren justifikazioa gastuen aurrekontu likidazioa aurkeztu egin behar zela eta horrek ez du diru-laguntzaren norakoa behar hainbat egiaztatzen.

- Euskal Herriko Lanbide Heziketako zentroyen elkarteei Lehen-Aukera programa abiarazteko emandako 1,2 milioi euroren diru-laguntzan, ez zen laguntza edo diru-laguntzen onuradun izaera finkatu laguntzaren xede den jarduera gauzatzen duten funts publikoen hartzaileentzat, EAEHONALTBren 50.1 artikulua agintzen duen moduan, izan ere laguntzen azken hartzaileak ez ziren praktiketan titulatuak edo praktikak egin zituzten enpresak izan. Nolanahi den ere, onuradun izan den erakundearen parte hartzeari beharrezko iritziko balitzaio laguntzak hobeto kudeatzeko, horrek erakunde kolaboratzaile modura parte hartzea erabaki behar zatekeen, horien araubidea arautzen duen 698/1991 Dekretuaren III. idazpuruan xedatutakoari jarraiki.

## Lehiaketa publiko bidez emango diren diru laguntzak (ikus A.20)

**3.3.3** Enplegu eta Gizarte Politika Sailak ematen dituen pertsona, familia, talde eta komunitateekin esku-hartze sozialeko jardueretarako laguntzak aztertu ditugu, 4,4 milioi



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

eurorenak eta 2013ko urteko euskal kirol federazioen kirol programetarako laguntzak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak 2,4 milioi euroan emandakoak.

- Enplegu eta Gizarte Politika Sailaren eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren oroitidazkiek ez dituzte zuzentzen zaizkion sektorean laguntzek duten eragina eta horien eraginkortasun eta efizientzia ebaluatzea bideratuko duten adierazleak jasotzen.
- Euskal kirol federazioek aurkeztutako kirol proiektuen balorazioan ez dira emandako puntuazioak behar hainbat arrazoitzen, Administrazio publikoen araubide juridiko eta administrazio prozedura bateratuari buruzko Legearen 54.2 artikulua agindu bezala.
- 2013rako euskal kirol federazioen kirol programetarako laguntzak emateko ebazpena ez da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, EAEHONALTBren 49.2 artikulua agintzen duenaren arabera.

### III.4 KONTRATAZIOA

Ekitaldi honetan egikaritu diren eta lehenagoko ekitaldietan esleitu ziren 45 espedienteko lagina eta 2013an esleitutako 27 espedienteko lagina aztertu dugu. Aztertutako espedienteen zerrenda A.19 eranskinean dago xehatua.

#### III.4.1 AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

- Euskal Herrian Trenbide Sare Berriko Tolosa-Hernialde zatiko lanetan (6. espedienteak), 104,7 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoetan, ez da justifikatu egindako aldaketa, 9,3 milioi eurorena, ustekabeko edo gerora sortutako arrazoiek eragin dutenik, SPKLren 202. artikulua agintzen duen moduan.
- Euskal Herrian Trenbide Sare Berriko bost zatiko lanetan (3, 5, 7, 10 eta 13 espedienteak), guztira 421,9 milioi euroan esleitutakoetan, Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailburuak obrek behin-behinean jarraitzeko baimena eman zuen, aipagai diren lanen aldaketa proiektuak idazten ziren bitartean. 2013ko abenduaren 31n ez dago jasoa proiektuen onespren teknikoa egin denik, ezta aldaketa espedienteena ere; horrek SPKLTBren 234.4 artikuluan ezarritako epeak urratzen ditu.
- Egikaritzea 2013ko ekitaldian amaitu duten bi kontratutan (27 eta 35 zk. espedienteak), horietako bat 3 milioi euroan esleitutakoa eta bestea aleko prezioetan, ez dago jasoa Administrazioak kontratuaren xedea eman edo gauzatu eta hurrengo hilabetean zehar burutu behar duen harrera edo adostasun ekintza formal eta positiboa egin dela; horrek SPKLren 222 artikulua urratzen du.
- Bi kontratutan (16 eta 22 zk. espedienteak) 13,5 milioi eurorenak, azken ziurtagiriaren onspena, hurrenez hurren, 2,5 eta 3 hilabeteko atzeraldiarekin gauzatu zen, SPKLren 235 artikuluan ezarritako gehiengo epearen gainetik.
- Guztira 8,5 milioi euroan esleitutako kontratu batean (21. espedienteak) okupazio akta 2013an gauzatu zen eta txosten hau idatzi dugun datan egin gabe dago obren harrera, azken ziurtagiria eta kontratuaren likidazioa, sailak atzeraldi hauek justifikatu ez dituela.

- Guztira 70,4 milioi euroan esleitutako hamar kontraturen luzapenak (19, 30, 32, 38, 40, 41, 42, 43, 44 eta 45 zk. espedienteak) ez dira dagokion agiri administratiboan gauzatu, SPKLTBren 23. artikulua agintzen duen moduan.
- SAP, HCM, PORTAL eta BWren guneak ezartzeko eta EAEn administrazio giza baliabideen sistemarako zerbitzu osagarriak emateko kontratua (28. espedientea) 2011ko maiatzean esleitu zen 9,3 milioi euroan; kontratua amaitzeko aurreikusitako epea 2013ko martxoan amaitu da. Guztira egikaritutako gastua 7,8 milioi euroena izan da. 2013ko uztailean kontratua suntsitzeko prozedura abiarazi zen, “arrazoi tekniko eta ekonomikoek” kontratua suntsitzea babesten dutela oinarri hartuta, eginkizunen garapenak alde biei asegabetsuna eragin dielako eta kontratua osorik egikaritzeak gainkostu ekonomikoa eragingo lukeelako”. 2013ko abuztuaren 30ean, Gobernu Kontseiluak kontratua alde bien adostasunez suntsitzea baimendu du eta 2013ko irailean suntsitu da.

Bestalde, EAEn Administrazio giza baliabideen sistemarako espediente elektronikoen kudeatzaile bat ezartzeko kontratua (29. espedientea) arestian aipatutako espedientearen baitakoa da; 2,1 milioi euroan esleitu zen eta 2013ko abenduan suntsitu da alde bien adostasunez; izan ere, Funtzio Publikoaren sailburuordearen 2013ko azaroaren 29ko Oroitidazkiak dioenaren arabera, proiektuaren egoera aintzat hartuta, arrazoi teknikoek kontratua suntsiaraztea bizkartzen dute. Guztira egikaritutako gastua 1,2 milioi euroena izan da.

Azkenik, Administrazioak kudeaketa mandatu bat gauzatu du EJIE, S.A.rekin EAEn Administrazioan giza baliabideen sistemaren garapen, ezarpen, mantentze eta bilakaerarako laguntza teknikoko zerbitzuak emateko “SAP giza baliabideak” eta “SAP espedienteen kudeaketa” plataformen gainean, 2013ko urriaren 1ean hasi eta 2014ko abenduaren 31ra arteko indarraldiarekin. Aipatutako mandatuaren zenbatekoa 7,7 milioi euroena da.

Kontratu hauen suntsipenean izaera teknikodun arrazoiak izatea alde batera utzita, zerbitzu mota honen kontratazioan hartutako eskarmentuak beharrezkoa egiten du Administrazioak kontratuaren plangintza eta jarraipena aparteko arretaz bideratzea, lehiaketak xede dituen helburuak egoki betetzea lortzearen.

- 2012ko abenduaren 5ean Donostialdeko metroa egiteko obra zibilaren kontratua esleitu zen, Kontxa-Morlans bide-zatiarena (26. espedientea), 50 milioi euroen zenbatekoan. Ordea, kontratua ez da gauzatu.

2013ko otsailaren 21ean, Eusko Legebiltzarraren Osokoak Donostialdeko metroari buruzko legez besteko proposamena onartu zuen, zeinetan Eusko Jaurlaritzari eskatzen dion esleitutako obra eta kontratuak suntsi ditzala; horien artean daude Kontxa-Morlans zatiari dagozkionak. 2014ko martxoan, Jaurlaritzak Administrazioaren eta kontratistaren arteko akordioa aho batez suntsitzeko espedientea abiaraztea erabaki zuen. Txosten hau idatzi dugun datan, kontratua suntsitzeari dagokion prozedura eta kalte-ordain zenbatekoari buruzko txosten kontrajarriak daudela eta, kontratua aho batez suntsitzeko haserako proposamena aldatu da eta proposamen berria lantzen ari dira. Administrazioak kontratistari ordaindu beharreko kalte-ordainen azken zenbatekoaren gaineko desadostasuna, 1 milioi eta 1,5 milioi euroen artekoa da, hasiera batean aurreikusitak zeudenak.





### III.4.2 2013-AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

- Guztira 3,7 milioi euroan esleitutako kontratu batean (46. espedienteak), guztira 3,7 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoan, ABPAk balio judizioari meneratutako esleipen irizpidea barne hartzen du, zeinari guztira % 50eko haztapena ematen zaion, edukiaren banaketa egin gabe eta horren balorazioa nola banatuko den zehaztu gabe. Gomendagarria litzateke, ahal den neurrian, irizpide hauek eta haztatzeko erabiliko den metodoa ahalik eta gehien zehaztea.
- Aleko prezioetan eta 4,7 milioi euroren gehiengo aurrekontuarekin esleitutako kontratu batean (53. espedienteak), esleipen prozesuaren balorazioan baliatutako haztapan koefizienteak hasiera batean jaso gabe zeuden ABPAetan. Gainera, DOUEn lehiaketa iragarkiaren balioetsitako balioak ez du balizko luzapenaren zenbatekoa jasotzen.
- 2,2 milioi euroren gehienezko aurrekontuarekin esleitutako kontratu batean (59. espedienteak), pleguetan kontratua aldarazteko aukera aurreikusten da. Alabaina, ez dira modu zehatz eta argian zehazten proposaturiko aldaketa egiteko baldintzak, SPKLTBren 106. artikulua agintzen duen moduan.
- Guztira 7,1 milioi euroan esleitutako bi kontratutan (47 eta 48 espedienteak) SPKLTBren 161. artikuluan esleipena egiteko aurreikusitako gehienezko epea gainditu da.
- Bestalde, 3,6 milioi euroren zenbatekoan esleitutako kontratu batean (48. espedienteak) zuinketa egiaztatzeko akta SPKLTBren 229. artikulua ezartzen duen gehienezko epearekiko bi hilabeteko atzerapenez izenpetu zen.
- Guztira 3,7 milioi euroren zenbatekoan esleitutako kontratu batean (46. espedienteak), Administrazioak ez du lan-programa onartu, APKLAoren 144.2 artikulua agintzen duen moduan.
- Guztira 0,1 milioi euroan esleitutako bi kontratutan (68 eta 69 zk. espedienteak), ez dago jasoa Administrazioak kontratuaren xedea eman edo gauzatu eta hurrengo hilabetean zehar burutu behar duen harrera edo adostasun ekintza formal eta positiboa egin duenik, SPKLTBren 222. artikulua agintzen duen moduan.

### III.4.3 KONTRATU TXIKIAK

Guztira 3,4 milioi euroren zenbatekoa egin duten 37 obra txikiri dagozkion gastuak azaleratu dira, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarenak; lehiaketa bidezko lizitazio bidez kontratatze gutzienekora iristen ez badira ere, aleko prezioetan edo hornitzaileak homologatzeko prozedura lehiatzeko elkartu litezke.

Bestalde, espediente berria esleitu bitartean kontratuak iraungi zitzaizkien hamabi zerbitzu-emalerekin kontratatzen jarraitu da eta guztira 0,7 milioi euroren gastuak egin dira.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III.5 ABALAK

Berme Publiko bidez Aparteko Finantzaketa Lerroari dagozkion abalen emakida aztertzean, Administrazio Orokorraren eta hainbat finantza-erakunderen artean 2012ko uztailaren 5eko hitzarmen bidez ezarri eta 2013ko ekitaldian indarrean egon denean, ondotik adierazitako egoerak azaleratu dira, hitzarmenaren baldintzak betetzean eragina dutenak:

- Administrazioak ez du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian onuradunen zerrenda argitaratu, emandako abalen zenbatekoaren, laguntzaren zenbatekoaren eta minimis izaeraren informazioa emanez.
- Ez dira egiaztatzen abalaz lagundutako maileguen poliza guztiak eta horrek hitzarmenean ezarritako betekizunak betetzen diren egiaztatzea eragozten du.
- Enpresa txiki eta ertain izaera duen zehazteko onuradunak egindako erantzukizuneko adierazpenean jasotako datuak soilik hartuko dira kontutan. Gomendagarria litzateke administrazioak baldintza modura urteko kontuak aurkezteko eskatzea.

### III.6 BESTELAKO ALDERDIAK

- Administrazio Orokorrak 2013ko ekitaldian egindako ordainketak aztertzerakoan ikusi da merkataritzako eragiketen batez besteko ordainketa epea 36 egun ingurukoa dela, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako borrokan neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeak agintzen duen gehienezko 30 eguneko epea urratuz. Nolanahi den ere, egindako ordainketen % 56, 496,2 milioi euroren zenbatekoan, ezarritako gehienezko epearen barruan egin da.
- Visesa, S.A. sozietate publikoak (Eusko Jaurlaritzak kapital sozialean % 79,4ko partaidetza du) Enplegu eta Gizarte Politika Sailaren beraren bitarteko modura dihardu babes ofizialeko etxebizitza berriak, alokairukoak eta tasatutakoak sustatzeko, SPKLTBren 24.6 artikulua botere esleitzailer baten berezko bitarteko izaera eskuratzeko agintzen dituen betekizunak bete gabe.



#### IV. FINANTZA ANALISIA

2012 eta 2013ko ekitaldietako ekarpenak likidatzeko foru aldundiek aurkeztutako informazioarekin bat, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak onetsitakoa, ondoko taulan diru bilketak ekitaldi horietan izan duen bilakaera ikus daiteke:

DIRU-BILKETA	AURREIKUSPENA 2013	DIRU-BILKETA		Euroak milioikotan	
		2013	2012	DIRUB. DIF. 2013/12 GORDINA	%
<b>ZERGA ZUZENAK</b>	<b>5.727,2</b>	<b>5.793,0</b>	<b>5.698,8</b>	<b>94,2</b>	<b>% 1,7</b>
PFEZ.....	4.419,0	4.265,0	4.329,2	(64,2)	(% 1,5)
Sozietateen Zerga .....	1.070,6	1.216,9	1.131,8	85,1	% 7,5
Ez egoiliarren PFEZ.....	42,2	43,1	32,8	10,3	% 31,4
Oinordetzen zerga .....	86,9	105,4	89,5	15,9	% 17,8
Ondare zerga.....	107,5	138,1	115,5	22,6	% 19,6
Iraungitako zergak.....	1,0	-	-	-	-
Energia elektrikoaren ekoizpena .....	-	24,5	-	24,5	-
<b>ZEHARKAKO ZERGAK</b>	<b>4.852,9</b>	<b>4.889,3</b>	<b>4.617,3</b>	<b>272,0</b>	<b>% 5,9</b>
BEZ.....	3.171,5	3.139,4	2.962,5	176,9	% 6,0
Eskualdatze zerga .....	81,9	71,9	79,9	(8,0)	(% 10,0)
Egintza Juridiko Dokument. gaineko Zerga ..	43,9	38,5	41,3	(2,8)	(% 6,8)
Garraio zerga berezia.....	18,9	13,6	17,3	(3,7)	(% 21,4)
Zerga bereziak .....	1.450,9	1.542,6	1.393,9	148,7	% 10,7
Salmenta txikien g/zerga.....	11,5	12,3	48,6	(36,3)	(% 74,7)
Beste batzuk .....	74,3	71,0	73,8	(2,8)	(% 3,8)
<b>TASAK</b>	<b>115,4</b>	<b>113,6</b>	<b>109,7</b>	<b>3,9</b>	<b>% 3,6</b>
<b>BEZaren DOIKETA</b>	<b>1.219,6</b>	<b>1.139,3</b>	<b>1.075,8</b>	<b>63,5</b>	<b>% 5,9</b>
<b>ZERGA BEREZIEN DOIKETA</b>	<b>(89,4)</b>	<b>(183,0)</b>	<b>(93,4)</b>	<b>(89,6)</b>	<b>% 95,9</b>
<b>DIRU-BILKETA GUZTIRA</b>	<b>11.825,7</b>	<b>11.752,2</b>	<b>11.408,2</b>	<b>344,0</b>	<b>% 3,0</b>
<b>FORU ALDUNDIEK EGINDAKO EKARPENAK</b>	<b>7.815,7</b>	<b>7.820,9</b>	<b>8.311,9</b>	<b>(491,0)</b>	<b>(% 5,9)</b>

2013an zergen diru-bilketak guztira gora egin du aurreko ekitaldiarekiko, nahiz zerga mota bakoitzari dagokionez, jokamoldea ezberdina izan den. Zeharkako zergetan igoerak BEZaren diru-bilketari eta zerga bereziei dagozkien eta zerga zuzenetan guztiek egin dute gora, PFEZak izan ezik, 64,2 milioi euroan behera egin duena.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Ondoko taulak Aurrezki gordinak, Emaidza arruntak eta Aurrekontuko saldoak azken lau ekitaldietan izan duten bilakaera erakusten du:

	Euroak milioikotan					
	2010	2011	2012	2013	% 2013/12	% 2013/10
<b>Sarrera arruntak (1)</b>	<b>8.368,5</b>	<b>8.436,1</b>	<b>8.773,2</b>	<b>8.172,8</b>	<b>(6,8%)</b>	<b>(% 2,3%)</b>
Zeharkako zergak (*) .....	4,3	3,0	2,5	6,1	144,0%	% 41,9
Tasak eta beste.....	189,4	210,9	181,9	195,7	7,6%	% 3,3
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak.....	8.090,9	8.024,9	8.423,8	7.923,0	(5,9%)	(% 2,1)
Ondare sarrerak.....	83,9	197,3	165,0	48,0	(70,9%)	(% 42,8)
<b>Gastu arruntak (2)</b>	<b>8.472,0</b>	<b>8.571,8</b>	<b>8.499,0</b>	<b>8.072,1</b>	<b>(5,0%)</b>	<b>(% 4,7)</b>
Langileria-gastuak.....	1.915,5	1.905,9	1.782,0	1.867,8	4,8%	(% 2,5)
Funtzionamendu gastuak.....	3.378,4	3.349,0	3.257,5	3.201,3	(1,7%)	(% 5,2)
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak.....	3.178,1	3.316,9	3.459,5	3.003,0	(13,2%)	(% 5,5)
<b>Aurrezki gordina (3=1-2)</b>	<b>(103,5)</b>	<b>(135,7)</b>	<b>274,2</b>	<b>100,7</b>	-	-
Finantza gastuak (4).....	81,4	151,7	196,7	222,0	12,9%	% 172,7
<b>Emaidza arrunta (5=3-4)</b>	<b>(184,9)</b>	<b>(287,4)</b>	<b>77,5</b>	<b>(121,3)</b>	-	-
<b>Inbertsio garbiak (6)</b>	<b>1.436,2</b>	<b>957,5</b>	<b>884,0</b>	<b>624,3</b>	<b>(29,4%)</b>	<b>(% 56,5)</b>
Inbertsio errealak .....	433,5	444,6	519,2	452,7	(12,8%)	% 4,4
Kapital transf. eta diru-lag. ....	1.101,9	730,1	783,6	457,7	(41,6%)	(% 58,5)
Finantza aktiboan igoera.....	115,1	105,5	73,5	175,1	138,2%	% 52,1
Inbertsio errealean besterentzea .....	(0,7)	(1,0)	(72,0)	-	-	-
Jasotako kapital transf. eta diru-laguntzak .....	(196,1)	(272,6)	(371,6)	(397,7)	7,0%	% 102,8
Finantza aktiboan gutxitzea .....	(17,5)	(49,1)	(48,7)	(63,5)	30,4%	% 262,9
<b>Jaulkitako zor garbia (7)</b>	<b>1.769,3</b>	<b>790,6</b>	<b>909,9</b>	<b>975,4</b>	<b>7,2%</b>	<b>(% 44,9)</b>
Finantza pasiboan igoera .....	1.893,0	960,1	1.084,4	1.175,3	8,4%	(% 37,9)
Finantza pasiboan gutxitzea.....	(123,7)	(169,5)	(174,5)	(199,9)	14,6%	% 61,6
<b>Aurrekontu arruntaren emaitza (8=5-6+7)</b>	<b>148,2</b>	<b>(454,3)</b>	<b>103,4</b>	<b>229,8</b>	-	-
<b>Aurrekontu itxien emaitza (9)</b>	<b>21,9</b>	<b>31,1</b>	<b>12,6</b>	<b>25,2</b>	<b>100,0%</b>	<b>% 15,1</b>
<b>Ekitaldiko Aurrekontu Emaidza (8+9)</b>	<b>170,1</b>	<b>(423,2)</b>	<b>116,0</b>	<b>255,0</b>	-	-

(\*) 2013an jokoaren gaineko tasaren gainkargua zerga zuzen modura kontabilizatu da eta 4 milioi euroren zenbatekoa egin du. 2012ra arte, gainkargu hau Tasak eta bestelakoak idazpuruan barne hartzen zen.




Sarrera arruntak 2013ko ekitaldian aurreko ekitaldiarekiko 600,4 milioi euroan murriztu dira, batik bat, Foru Aldundiek 491 milioi euro gutxiagoko ekarpena egin dutelako eta ondare diru-sarrerak ere 117 milioi euro murriztu direlako.

Gastu arruntak aurreko ekitaldikoekiko 426,9 milioi eurotan murriztu dira; horretan zeinu ezberdineko bariazioak izan dira:

- Langile gastuetan 85,8 milioi euroren igoera, honen ondorioz:
  - . 2013ko ekitaldian aparteko bi ordainsariak ordaindu dira eta 2012an, berriz, abenduko aparteko ordainsaria, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretu Legea ezarri izanaren ondorioz, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehiakortasunaren sustapena bermatzeko neurriei buruzkoa.
  - . 2012ko irailean 2011ko enplegu eskaintza publikoan (EEP) hautatutako praktiketako 531 funtzionario irakasle laneratu ziren; 2013ko otsailean, Laguntzaile Teknikoen Kidegoko 52 karrerako funtzionario, 2011ko irailean deitutako EEPn hautatutakoak eta 2013ko urtarrilean, 2011ko EEPn hautatutako Ikuskarien Kidegoko praktiketako 25 funtzionario. Gainera, Nekazal eta Itsas-Arrantzuko Prestakuntza Zerbitzuko lan kontratu finkoko 123 langile transferitu ziren, Hazi, Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Korporazioa, S.A.tik zetozenak.
  - . Aldi baterako langileriak (bitartekoak, ordezkokoak, aldi baterakoak eta indartzekoak) nominan behera egin du 2012koarekiko, Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren 2012ko otsailaren 14ko eta 2013ko urriaren 16ko aginpideak aplikatu izanaren ondorioz, zeinaren indarrez langileen kontratazioan gastua murrizteko neurriak ezartzen diren.
  - . EAEren Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduen langileriaren ordainsariak bateratzea eta irakasleei lanbide karrera kontzeptuan osagarria ordaintzea.
- Funtzionamendu gastuek izandako 56,2 milioi euroren beheraldia. Hona hemen aurrezki nagusiak: Segurtasunean 15,5 milioi euroren gastu txikiagoa; aplikazio informatikoen mantentze-lan eta ustiapenean 9,5 milioi euro gutxiago eta beste zerbitzu batzuetan 23,3 milioi euroren gastu txikiagoa.
- Transferentzia eta diru-laguntza arruntak 456,5 milioi euroan murriztu dira; bereziki azpimarratzekoa da Lanbide-Enpleguaren Euskal Zerbitzua erakunde autonomoari egindako ekarpen txikiagoa, iaz baino 153,6 milioi gutxiago jaso baitu, eta familiei emandako diru-laguntza 123,2 milioi euro txikiagoa izan da.

## DIRU-BILKETA, EKARPEN ETA GASTU ARRUNTEN BILAKAERA

Euroak milioikotan




Nahiz sarrera arruntek % 6,8 egin duten behera aurreko ekitaldiarekiko, ekitaldiko gastu arruntei aurre egin ahal izan die; horren ondorioz, ekitaldiko aurrezki gordina positiboa izan da 100,7 milioi euroan.

Inbertsio garbiak behera egin dute 259,7 milioi euroan; hona hemen bariazio esanguratsuenak:

- Egiatzko inbertsioek 66,5 milioi euro egin dute behera, kapitulu honetako ia kontzeptu guztiek egikaritza txikiagoa izan dutelako.
- Emandako kapitalezko transferentzia eta diru-laguntzak 325,9 milioi euroan murriztu dira, sektore pribatuarekiko diru-laguntza jarduera txikiagoa izan delako eta sektore publikoari egindako transferentziek ere behera egin dutelako.
- “Finantza aktiboen igoera” gastuen kapitulua 101,6 milioi euroan gehitu da, batik bat ondotik zerrendatutako hauek gora egin dutelako: FEIren Gizarte funtsa 25 milioi euroan gehitu da; Bilbao Exhibition Centre, S.A.n gizarte partaidetza 13,6 milioi euroan; beste inbertsio batzuk, 30 milioi euroan; eta Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien arteko erakundearteko akordiotik eratorritako kredituak, ekonomia suspertu eta inbertsio proiektuak garatzeko, 54 milioi euroan.
- Jasotako kapitalezko transferentzia eta diru-laguntzek 26,1 milioi euroren igoera izan dute, batik bat, Europar Batasunetik eratorritako funtsak 44,6 milioi euroan gehitu direlako; Estatuko Administrazio Nagusitik eratorritako diru-sarrerak 10,3 milioi euroan murriztu direlako eta Foru Aldundiek Berrikuntza Funtsari egin ohi zizkieten ekarpenak amaitu direlako, 2013an 6 milioi euro egin dutenak.

Aurreko ekitaldiari dagokionez, gastu arruntak diru-sarrera arruntak baino kopuru txikiagoan murriztu dira eta honenbestez, beharrezkoa izan da berriz zorpetzea, 1.175,3 milioi euroan, inbertsio garbi guztiak finantzatu ahal izateko. Aurrekontuaren saldoa 2012an 116 milioi euroa izatetik, 2013an 255 milioikoa izatera aldatu da.

Hona hemen adierazle nagusien bilakaera grafikoan jasota:





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Azken lau ekitaldietan Gauzatutako Diruzaintza Geldikinaren bilakaera honakoa izan da:

	Euroak milioikotan					
	2010	2011	2012	2013	% 2013/12	% 2013/2010
<b>DIRUZAINZAKO GELDIKINA</b>	<b>424,9</b>	<b>1,7</b>	<b>117,7</b>	<b>372,7</b>	<b>216,7%</b>	<b>(% 12,3)</b>
Zuzkidurak eta doiketak.....	124,6	145,0	144,5	171,1	18,4%	% 37,3
<b>DIRUZAINZAKO GELDIKIN ERABILGARRIA</b>	<b>300,3</b>	<b>(143,3)</b>	<b>(26,8)</b>	<b>201,6</b>	<b>852,2%</b>	<b>(% 32,9)</b>
Erabilitako zorra.....	4.382,1	4.883,1	6.057,8	7.030,1	16,0%	% 60,3
Erabili gabeko zorra.....	-	274,6	-	-		
<b>GAUZATUTAKO ZORPETZEA</b>	<b>4.382,1</b>	<b>5.157,7</b>	<b>6.057,8</b>	<b>7.030,1</b>	<b>16,0%</b>	<b>% 60,3</b>

EAEren Administrazio Orokorraren egoera ekonomikoak bizi dugun krisi ekonomiko egoera islatzen du. Nahiz Diruzaintza Geldikinak 255 milioi euroan egin duen gora 2013ko ekitaldian aurreko ekitaldiarekiko, aztertutako aldian diru-sarrerara arrunten ehuneko oso txikia egiten du, 2010ean % 5,1 egitetik 2013an % 4,6 egitera aldatuz. Aurrekontu-likidazioaren 1. oharren eragina aintzat hartuta, Diruzaintza Geldikin Erabilgarria 2013ko abenduaren 31n 311,1 milioi eurorena izango litzateke. Bestalde, erabilitako zorra 972,3 milioi euroan gehitu da aurreko ekitaldiarekiko.

## AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak, Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoak, irailaren 28ko 4/2012 Legeak aldarazitakoak, Espainiako Konstituzioaren 135. artikuluan jasotako mandatua garatzen du eta administrazio publikoen aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasunari buruzko alderdiak arautzen ditu. Berebat, Lege Organiko honen Azken Xedapen Hirugarrenak adierazten du Lege horretan xedatutakoa Euskal Autonomia Erkidegoari ezartzea, Ekonomia Itunaren Legeak erabakitakoa kaltetu gabe egingo dela.

Bestetara, Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontzertu Ekonomikoa onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 48. artikulua Estatuarekiko koordinazioa eta kolaborazioa aurreikusten ditu aurrekontuaren egonkortasun gaietan (hirugarren atala). Lege beraren 62. artikulua, bestetik, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren egitekoen artean aurrekontu egonkortasunaren gaietan kolaborazio eta koordinaziorako konpromisoa hitzartzeko egitekoa zehazten du.

2011ko irailaren 19an, Estatuko eta Euskal herriko administrazioek aurrekontu egonkortasunaren helburua adostu zuten 2012-2014 aldirako, gerora, 2012ko martxoaren 8an aldarazi zena. Honela bada, erabaki horietan jasotakoaren arabera, egungo egoera ekonomikoa aintzat hartuta, EAEk 2012-2014 berrrorekarako ekonomia-finantza plana eguneratzen badu eta neurri horiek apropostzat jotzen baditu Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak, aurrekontu defizitaren helburuak 2012ko ekitaldian BPGren % 1,5eko gehienekoa





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

eskuratu ahal izango du eta BPGren % 1,1eko eta % 1,0ko gehienekoa 2013 eta 2014an, hurrenez hurren. 2012-2014 berrerekarako ekonomia-finantza plana EAEren Administrazio Orokorrak gaurkotu zuen 2012ko martxoaren 16an.

2013rako aurrekontuaren egonkortasun eta zor publikoaren helburuak berraztertu izanaren ondorioz, Estatuko eta Euskal herriko administrazioek 2013ko irailaren 12an egindako bileran, hurrenez hurren, BPGren % 1,20 eta % 12,2ko maximoak jo ditzaketela ebatzi zuten. Aldi berean, 2014-2016 aldirako aipatutako helburuak finkatzea ere erabaki zen.

2014ko urtarrilaren 16an Ekonomia Itunerako Batzorde Mistoak egindako bileran berretsi egin ziren Estatuko eta Euskal Herriko administrazioen artean lortutako erabaki hauek.

Estatuko Administrazioaren Artekaritza Orokorrak baliatutako irizpideen arabera 2013rako kalkulaturako behin-behineko defizita EAEko BPGren % 1,15ekoa izan da eta horrek bete du ekitaldi honetarako ezarritako helburua.

2013ko ekitaldirako zor publikoaren helburuaren kalkulua Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioak landu zuen eta hainbat doiketa eta salbuespen jaso zituzten, homogeneotasun terminoetan, Euskal Herriaren kasuan, zor publikoaren helburua BPGren gainean % 13,2 gehitzea eragin zuena. EAEk BPGren gaineko zor publikoaren proportzioa 2013an % 13,1era igo zen; honenbestez, bete da ekitaldi horretarako aipatutako helburua.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V. 2013-KO EKITALDIKO KONTUAK 2013-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

AURREKONTU ARRUNTA							Euroak milioikotan
SARRERAK KAPITULUA	HASIERAKO AURREK.	ALDAK.	B BETIKO AURREK.	AITORT. ESKUB.	KOBRAT.	KOBR. GABEA	
2 Zeharkako zergak .....	7,2	-	7,2	6,1	4,2	1,9	
3 Tasak eta bestelako sarrerak (A.9).....	105,8	69,2	175,0	195,7	155,6	40,1	
4 Transf. eta dirul. arruntak (A.10).....	7.915,1	9,6	7.924,7	7.923,0	7.701,4	221,6	
5 Ondare sarrerak.....	70,3	0,2	70,5	48,0	43,0	5,0	
6 Inbertsio errealen besterentzea .....	3,0	-	3,0	-	-	-	
7.- Kapital diru-lag. eta transf. (A.11).....	395,3	-	395,3	397,7	58,4	339,3	
8 Finantza aktiboen gutxitzea (A.12).....	9,4	13,9	23,3	63,5	20,5	43,0	
9 Finantza pasiboen igoera (A.16).....	1.238,2	-	1.238,2	1.175,3	1.175,3	-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>9.744,3</b>	<b>92,9</b>	<b>9.837,2</b>	<b>9.809,3</b>	<b>9.158,4</b>	<b>650,9</b>	

GASTUAK							Euroak milioikotan
KAPITULUA	HASIERAKO AURREK.	ALDAK.	B BETIKO AURREK.	AITORT. OBLIG.	ORDAIN.	ORDAIN. GABEA	
1 Langile gastuak (A.4) .....	1.900,3	12,5	1.912,8	1.867,8	1.867,8	-	
2 Funtzionamendu gastuak (A.5) .....	3.206,8	85,4	3.292,2	3.201,3	2.911,6	289,7	
3 Finantza gastuak (A.16) .....	196,8	34,5	231,3	222,0	222,0	-	
4 Transf. eta dirul. arruntak (A.6).....	3.491,3	(135,1)	3.356,2	3.003,0	2.831,1	171,9	
6 Inbertsio errealak (A. 7).....	559,2	(11,2)	548,0	452,7	361,6	91,1	
7.- Kapital diru-lag. eta transf. (A.6).....	824,9	(22,8)	802,1	457,7	304,6	153,1	
8 Finantza aktiboen igoera (A.8) .....	81,4	104,2	185,6	175,1	175,1	-	
9 Finantza pasiboen gutxitzea (A.16).....	174,5	25,4	199,9	199,9	199,9	-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.435,2</b>	<b>92,9</b>	<b>10.528,1</b>	<b>9.579,5</b>	<b>8.873,7</b>	<b>705,8</b>	

AURREKONTU ITXIAK (A.13)					Euroak milioikotan
	ZOR ESKUB./OBLIG. 12.12.31-N	KOBR/ ORDAINK.	BALIOGAB.	ZOR ESKUB. 13.12.31-N	
Diru-sarrerak.....	1.305,5	644,4	19,0	642,1	
Gastuak.....	1.046,2	900,7	44,2	101,3	

KONPROMISO KREDITUAK (A.18)				Euroak milioikotan
KAPITULUA	HASIERA URTEA			
	AURREKO URT.	2013	GUZTIRA	
Langileria-gastuak.....	0,1	-	0,1	
Funtzionamendu gastuak.....	47,9	95,4	143,3	
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak.....	41,9	73,8	115,7	
Inbertsio errealak.....	723,3	24,8	748,1	
Transferentziak eta kapital diru laguntzak.....	442,1	71,9	514,0	
Finantza aktiboen igoera.....	323,6	27,3	350,9	
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.578,9</b>	<b>293,2</b>	<b>1.872,1</b>	



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## 2013-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI JARRITAKO OHARRAK

**1. Oharra.-** EAren Administrazioaren diruz lagungarri diren gastuak diru-laguntzak ematen diren unean erregistratzen dira eta aplikatuko zaien aurrekontu erregimena aurre egin beharreko ordainketei eta/edo diru-laguntza edo laguntzaren baldintzak egiaz betetzeari dagokionez egokien diren kreditu motaren arabera izango da, ordainketazkoa edo konpromisozkoa, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko Legeak ezarritako irizpideari jarraiki. Irizpide honen ondorioz, 2013ko abenduaren 31n oraindik eskagarriak ez diren ordainketa obligazioak existitzen dira, 109,5 milioi euroren zenbatekoa egin dutenak.

**2. Oharra.-** 2013ko abenduaren 31ra arte jasotako funts komunitarioetatik 1.018,5 milioi euro Europar Batasunak ikuskatu ditzake eta ezinezkoa da zehaztea finantzatutako proiektuen berrikuspenak Diruzaintza Geldikinarekin gainean izan lezakeen eragina. Nolanahi dela ere, iragan esperientzia oinarri hartuta, ez dirudi eragin hori adierazgarria izan litekeenik.

**3. Oharra.-** Zorpetze publikoari dagozkion sortutako eta iraungi gabeko interesak, 100,2 milioi eurorenak, urteko kontuetan erregistratzen dira eta ondarearen emaitza ekonomikoaren atal dira. Aurrekontuaren exekuzioak ez du kopuru hau islatzen, izan ere, interesen gastuak kutxa irizpideari jarraiki erregistratzen baititu.

**4. Oharra.-** Bizkaiko Garraio Partzuergoaren finantza planak, Bilboko Hiri Trenbidearen inbertsioei buruzkoak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrek 2014tik 2027ra bitarteko urteetan 504,2 milioi euroren ekarpena egitea aurreikusten du, urte horietako EAren Aurrekontu Orokorretan kontsignatuko direnak, Partzuergoari ekitaldi bakoitzean egin beharreko transferentziari dagokion kopuruan.

**5. Oharra.-** Eusko Jauriaritzak enpresa-talde bati emandako laguntzak ez-legezko eta merkatu komunarekin bateraezin izendatu zituen EBJAren 2012ko abenduaren 11ko epaia betetzeko, Espainiako Erreinuak Europako Batzordeari 2013an 23,9 milioi euro ordaindu dizkio. 2014ko apirilaren amaieran, Estatuko Administrazioak auzi honi dagokionez Europar Batasuneko zuzenbidea ez betetzeagatik erantzukizunak zehaztu eta eragiteko prozedura abiaraztea erabaki du guztira 23,9 milioi euroren zenbatekoan; erabaki hori Eusko Jauriaritzari jakinarazi zaio egin beharreko alegazioak aurkez ditzan. Behin alegazio horiek formulatu ondoren, prozedura gaur egun instrukzio fasean dago behin betiko ebatzi bitartean. (\*)

**6. Oharra.-** EAren Administrazio Orokorrek desadostasunak ditu Estatuko Administrazio Orokorrekin, 2007-2011 bosturteko Euskal Herriko Kupa bereizteko metodologia onartzen duen urriaren 25eko 29/2007 Legearen xedapen gehigarri hirugarrenaren aplikazioari dagokionez (hezkuntza, osasun eta mendekotasun gaietan akordioak) eta bosgarrenaren aplikazioari dagokionez (gaurkotze oinarria eta/edo adierazlea berrikustea); baita, enplegu politika aktiboan gaitan EAeri eskualdaketako aurrekontu araubidea ezartzei dagokionez ere. Alde guzti hauen ondorio ekonomikoak ez daitezke zehaztu harik eta dagokion likidazioa egiten ez den arte.

(\*) HKEEren oharra: 14/09/30eko Gobernu Kontseiluaren Erabakia betetzeko 14/10/1ean ordaindua.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

ZORPETZEA	Euroak milioikotan
SALDOA 12.12.31-N .....	6.092,4
Zor jaulkipena (Balio nominala) .....	420,7
Mailegu berrien erabilera (balio nominala) .....	778,5
Amortizazioa .....	(199,9)
<b>SALDOA 13.12.31-N (Balio nominala) (A.16)</b>	<b>7.091,7</b>

2013-KO EMAITZA ETA 13.12.31-N DIRUZAINZTA GELDIKINA	Euroak milioikotan
Diruzaintza Geldikina 2012/12/31n.....	117,7
2013ko ekitaldiaren superabita.....	255,0
Aurrekontu Arruntaren Superabita .....	229,8
Aurreko Ekitaldietako Eragiketen Superabita (A.13).....	25,2
<b>DIRUZAINZTA GELDIKINA 2013/12/31-N</b>	<b>372,7</b>

DIRUZAINZTA GELDIKINAREN GAUZATZEA 13.12.31-N	Euroak milioikotan
<b>DIRUZAINZTA (A.14)</b>	<b>441,3</b>
<b>KOBRATZEKOA</b>	<b>1.339,4</b>
Indarreko ekitalditik kobratzeko dauden eskubideak.....	650,9
Itxitako ekitaldietatik kobratzeko dauden eskubideak .....	642,1
Aurrekontuz kanpoko zordunen saldoak (A.15).....	46,4
<b>ORDAINTZEKOA</b>	<b>(1.408,0)</b>
Indarreko ekitaldiko ordaintzeko dauden obligazioak .....	(705,8)
Itxitako ekitaldietako ordaintzeko dauden obligazioak .....	(101,3)
Hartzekodunen aurrekontuz kanpoko saldoak (A.15) .....	(600,9)
<b>DIRUZAINZTA GELDIKINA 2013/12/31-N</b>	<b>372,7</b>

DIRUZAINZTA GELDIKIN ERABILGARRIA 13.12.31-N	Euroak milioikotan
Diruzaintza Geldikina 2013/12/31n.....	372,7
Eraginpeko geldikina:	
Ikastetxe publikoetarako geldikina.....	(33,6)
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak	
Exekutututako abalek eragindako erreklamazioak (A.17) .....	(34,4)
Betearazte-bidean diru-bilketa.....	(32,4)
Aitortutako beste eskubide batzuk .....	(70,7)
<b>DIRUZAINZTA GELDIKIN ERABILGARRIA 13.12.31-N</b>	<b>201,6</b>



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## URTEKO KONTUAK

BALANTZEA			Euroak milioikotan		
AKTIBOA	2013	2012	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2013	2012
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA (A.21)</b>	<b>4.583,4</b>	<b>4.380,1</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>(2.335,5)</b>	<b>(1.772,1)</b>
Ibilgetu ukiezina .....	82,3	87,0	Sortutako ondarea .....	(2.554,1)	(2.008,6)
Ibilgetu materiala .....	2.811,4	2.630,3	Aurreko ekitaldietako ondorioak .....	(1.765,6)	(1.218,8)
E/l finantza inb. taldeko erakundeetan .....	1.321,7	1.323,9	Ekitaldiaren emaitzak .....	(788,5)	(789,8)
Finantza inbertsioak e/luz. ....	317,6	278,2	Bst.ondare igoerak, emaitz.egozteko zai .....	218,6	236,5
Zordunak eta kobratz. bste knt. btzu e/luz....	50,4	60,7	<b>PASIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>7.198,6</b>	<b>6.216,0</b>
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>2.804,8</b>	<b>2.409,1</b>	E/luz. zuzkidurak .....	144,6	121,0
Izakinak .....	1.161,5	802,7	E/luzeko zorrak (A.16).....	7.037,0	6.070,5
Zordunak eta kobratz. bst kontu batzuk .....	1.177,3	1.222,4	Hartzek. eta e/luz. ordain. bste knt btzuk .....	17,0	24,5
E/lab finantza inb. taldeko erakundeetan .....	23,5	24,9	<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>2.525,1</b>	<b>2.345,3</b>
Finantza inbertsioak e/lab. ....	1,2	1,9	E/laburreko zorrak .....	144,5	129,4
Eskud. & b. aktibo lik. balioek. batz. (A.14)....	441,3	357,2	Taldeko erakundeekin zorrak e/lab.....	375,8	339,4
			Hartzekod. eta ordaintz. bst. kontu batzuk .	2.004,8	1.876,5
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>7.388,2</b>	<b>6.789,2</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>7.388,2</b>	<b>6.789,2</b>

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA	Euroak milioikotan	
	2013	2012
Zerga sarrerak .....	25,7	26,8
Jasotako transferentzia eta diru-laguntzak .....	7.978,4	8.451,6
Salmenta garbiak eta zerbitzu ematea .....	16,9	139,7
Amaitutako eta abian diren produktuen izakinen bariazioa eta balioaren narriadura .....	360,5	258,0
Kudeak. arrunteko beste sarrera batzuk .....	107,3	106,6
Hornidura gehiegizkoak .....	7,3	21,6
<b>KUDEAK. ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>8.496,1</b>	<b>9.004,3</b>
Langile gastuak (A.4).....	(1.867,8)	(1.782,0)
Emandako transferentzia eta diru-laguntzak.....	(3.423,2)	(4.221,7)
Hornidurak .....	(361,7)	(377,2)
Kudeak. arrunteko beste gastu batzuk .....	(3.182,7)	(3.235,0)
Ibilgetuaren amortizazioa .....	(134,8)	(128,6)
<b>KUDEAK. ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(8.970,2)</b>	<b>(9.744,5)</b>
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKI EZA)</b>	<b>(474,1)</b>	<b>(740,2)</b>
Balio narriadura eta ibilgetu ez finantzarioa besterenganatzeagatiko emaitzak eta aktiboak salgai .....	13,8	68,7
Beste kontusail ez arrunt batzuk .....	(13,7)	(15,6)
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>(474,0)</b>	<b>(687,1)</b>
Sarrera finantzarioak .....	51,5	168,3
Finantza gastuak .....	(229,5)	(199,4)
Finantza aktibo eta pasiboetan arrazoizko balioaren bariazioa .....	0,1	(0,8)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza aktibo eta pasiboen besterentzeak .....	(136,6)	(70,8)
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>(314,5)</b>	<b>(102,7)</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKI EZA)</b>	<b>(788,5)</b>	<b>(789,8)</b>



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ONDARE GARBIAK ALDAKETEN EGOERA

### 1.- ONDARE GARBIAK ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA

Euroak milioikotan

	BESTE ONDARE.		
	SORTUTAKO ONDAREA	GEHIKUN. BATZ.	GUZTIRA
<b>2012-KO EKITALDI ITXIERAN ONDARE GARBIA</b>	<b>(2.008,6)</b>	<b>236,5</b>	<b>(1.772,1)</b>
Kontularitzako irizp. aldatzeag. doiketak eta akats zuzenketa .....	243,0	-	243,0
<b>2013-KO DOITUTAKO HASIERAKO ONDARE GARBIA</b>	<b>(1.765,6)</b>	<b>236,5</b>	<b>(1.529,1)</b>
<b>2013ko ekitaldiko ondare garbiaren bariazioak</b>			
Ekitaldian aitortutako sarrerak eta gastuak .....	(788,5)	(17,9)	(806,4)
<b>2013-KO EKITALDI ITXIERAN ONDARE GARBIA</b>	<b>(2.554,1)</b>	<b>218,6</b>	<b>(2.335,5)</b>

### 2.- AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA

Euroak milioikotan

	2013	2012
<b>EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKI EZA)</b>	<b>(788,5)</b>	<b>(789,8)</b>
<b>Ondare garbian zuzenean jasotako aitortutako sarrera eta gastuak</b>		
Bestelako ondare gehikuntzak .....	2,3	7,4
<b>Emaizta ekonomiko-ondarezkoaren kontura edo kontusailaren hasierako baliora transferentziak</b>		
Bestelako ondare gehikuntzak .....	(20,2)	(7,7)
<b>AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(806,4)</b>	<b>(790,1)</b>



ESKUDIRUEN FLUXUEN EGOERA	Euroak milioikotan	
	2013	2012
<b>KUDEAKETA-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>		
<b>Kobrantzak</b>	<b>8.602,7</b>	<b>8.501,8</b>
Zerga sarrerak .....	25,8	28,9
Jasotako transferentzia eta diru-laguntzak .....	8.383,9	8.158,6
Salmenta garbiak eta zerbitzu ematea .....	15,4	21,2
Interesak eta kobratutako dibidenduak .....	44,1	164,2
Bestelako kobrantzak .....	133,5	128,9
<b>Ordainketak</b>	<b>9.314,6</b>	<b>10.024,5</b>
Langileria-gastuak .....	1.886,8	1.785,4
Emandako transferentzia eta diru-laguntzak .....	3.634,3	4.437,2
Hornidurak .....	357,6	318,2
Bestelako kudeaketa gastuak .....	3.191,3	3.261,7
Ordaindutako interesak .....	216,6	193,2
Beste ordainketa batzuk .....	28,0	28,8
<b>Aurrekontukoak ez diren beste kobrantza eta ordainketa batzuk</b>	<b>36,8</b>	<b>(39,0)</b>
<b>Kudeaketa-jardueren eskudiruzko fluxu garbiak</b>	<b>(675,1)</b>	<b>(1.561,7)</b>
<b>INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>		
<b>Kobrantzak</b>	<b>30,6</b>	<b>130,4</b>
Inbertsio errealen salmenta .....	0,3	72,9
Finantza aktiboen salmenta .....	26,9	50,9
Inbertsio jardueren beste kobrantza batzuk .....	3,4	6,6
<b>Ordainketak</b>	<b>283,1</b>	<b>344,9</b>
Inbertsio errealen erosketa .....	103,6	219,7
Finantza aktiboen erosketa .....	175,2	117,0
Inbertsio jardueren beste ordainketa batzuk .....	4,3	8,2
<b>Inbertsio-jardueren eskudiruzko fluxu garbiak</b>	<b>(252,5)</b>	<b>(214,5)</b>
<b>FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>		
<b>Finantza pasiboak jaulkitzeagatiko kobrantzak</b>	<b>2.589,3</b>	<b>3.323,8</b>
Obligazioak eta beste balio negoziagarri batzuk .....	396,8	523,9
Jasotako maileguak .....	2.192,5	2.799,9
<b>Finantza pasiboak itzultzeagatiko ordainketak</b>	<b>1.599,9</b>	<b>2.060,3</b>
Jasotako maileguak .....	1.599,9	2.060,3
<b>Finantzaketa jardueren eskudiruzko fluxu garbiak</b>	<b>989,4</b>	<b>1.263,5</b>
<b>Erakunde Autonomoekiko zorren bariazioa</b>	<b>22,3</b>	<b>171,5</b>
<b>ESKUDIRUAREN GEHIKUNTZA EDO MURRIZKETA GARBIA ETA</b>		
<b>ESKUDIRUAREN BALIOKIDE DIREN AKTIBO LIKIDOAK</b>	<b>84,1</b>	<b>(341,2)</b>
Eskudirua eta eskudir. baliokide diren aktibo likid. ekit. hasieran	357,2	698,4
Eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldi amaieran	441,3	357,2



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

---

## OHARRA, ZUZKIDURAK ETA KONTINGENTZIAK

---

Administrazioak emandako abalek edo abian dauden auziek eragindako balizko zein egiazko erantzukizunak (10 oharrean zehaztutakoak), pasibo horiek azaleratzen diren ekitaldiaren emaitzen aurka hornitzen dira, zenbatekoaren balioespen arrazoizkoaren arabera. 2013ko abenduaren 31n zenbatekoa 144,6 milioi eurorena izan zen.

Berebat, maiatzaren 30eko 10/2012 Legeak, ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldarazten duena, Gobernuari buruzkoa, bizitza osorako pentsio eskubidea izateko baldintzak ezartzen ditu 1936ko urritik 1979ko abenduaren 15 arte Eusko Jaurlaritza osatu zuten lehendakari eta sailburuena, desagertutako Euskal Kontseilu Nagusiaren lehendakari eta sailburuena eta Euskal Autonomia Erkidegoko hurrengo Gobernuen lehendakari eta sailburuena.

Bestetik, maiatzaren 13ko 1/1986 Legegintzazko Dekretuak, Euskal Administrazio Autonomoari zerbitzu eman zien langileen eskubide profesional eta pasiboei buruzko testu bateratua onesten duenak ezartzen du, 1936ko urriaren 7tik 1978ko urtarrilaren 6ra bitarteko aldiaren Eusko Jaurlaritzaren agindu eta destino bidez Euskal Administrazioan edo bestelako administrazio zein antolakuntzetan urtebetekoa baino txikiagoa ez den denboran zerbitzuak izaera ohiko eta jarraituarekin eman zituzten funtzionario eta administrazio edo lan kontratupekoek, erretiroagatiko pentsioa jasotzeko eskubidea izango dutela.

Azkenik, Ertzaintzako langileria ezargarria zaion araudiak pentsioen osagarri diren aldizkako prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea aitortzen du, zerbitzu-aldian heriotza gertatzen deneko hainbat kasutan edota zerbitzu-alditik eratorritako ezgaitasunagatiko nahitaezko erretiro kasuetarako.

2013ko abenduaren 31n ez da kontzeptu hauen izenean inongo zuzkidurarik erregistratu.

Bi kontzeptu horien ordainetan 2013ko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrek bere langileekiko legezko obligazioengatik egindako ordainketak 1,9 milioi eurorenak izan dira.

---





## VI. EAE-REN ADMINISTRAZIO OROKORRAK "HIRIKO" PROIEKTUARI EMANDAKO LAGUNTZA ETA DIRU-LAGUNTZEN ANALISIA, 2010-2013

### VI.1 SARRERA

EAEren Administrazio Orokorrak "Hiriko" izeneko proiektuari laguntzak eman dizkio EAEHONALTBren 51.4 artikuluan aurreikusitako lehiaketa prozedura baliatuta, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren (egun Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Saila) Etorgai programaren 2010, 2011 eta 2012ko deialdi publikoen bitartez.

Etorgai programaren helburua itzulgarriak ez diren diru-laguntza bidez laguntzak ematea da, sektore estrategikoetan industria-ikerketa eta garapen esperimentaleko proiektuak egitea finantzatzeko eta I+D+i-n lankidetzan publiko-pribatua sustatzeko, Euskal Herriko ekonomian trakzio-eragina izan dezaten, Pymeen esku-hartzea eta Europako I+D VII. Esparru Programarako irispidea bideratuz.

Etorgai programa arautzen duen arategiak (2008ko abuztuaren 6ko Agindua, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburuarena, eta 2011ko azaroaren 30eko Agindua, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailburuarena), besteak beste, zera dio:

- Proiektu bat diru-laguntza gai izateko gutxienez guztira lau milioi euroren aurrekontua aurkeztu beharko du eta gehienera hiru urteko iraupena izan.
- Proiektuak enpresen partzuergoek garatuko dituzte, ZTBESeko eragileekin azpikontratatu gisa lankidetzan arituko direnak.
- Enpresa kideetako batek kontratista nagusi modura proiektua zuzentzeko lider izaera hartuko du bere gain.

Hona hemen diruz lagungarri diren gastuak:

- Ikerlari eta teknikarien gastuak ez ezik, ikerketa lanean baliatutako laguntzarako bestelako zeinahi langilerena, erakunde eskatzaileko plantillakoa dena.
- Kanpoko aholkularitzaren eta zerbitzu baliokideen kostua (erakunde parte-hartzaileetako langileak ez diren langile kolaboratzaileak eta goi mailako espezializazioa duten proiektuko zatien azpikontratazioa barne), ikerketa jarduerarako bakarrik eta modu jarraituan erabiliak eta kanpoko iturriei erositakoak, ezagutza teknikoak eta ikerketakoak barne.
- ZTBESeko eragileak azpikontratatzeko kostuak.
- Ustiaketa gastuak (material, hornigai, bidai, e.a.en kostuak), ikerketa jardueraren ondorioz zuzenean egindakoak.
- Ikerketa jarduerarako soilik eta modu jarraituan erabilitako tresna eta ekipoen kostua. Ikerketa jarduerarako bakarrik eta modu jarraituan erabilitako ekipamendu eta tresneria kostuen amortizazioa proiektuak dirauen bitartean, doan lagata eskuratu diren haien kasua salbu.
- PYMEentzat industri jabetzako eskubideen kostua.



Izaera estrategikoa duten Industri Ikerketako Proiektuentzako laguntzaren ehunekoa hautatu eta finkatzeko, kasua bada, besteak beste, ondotik zehaztutako oinarritzko irizpideak hartuko dira aintzat:

- a) Proiektuko jardueren orientabide zientifiko-teknologikoa.
- b) Proiektuko espero izandako emaitzen inpaktua.
- c) Partzuergoaren oreka eta gaitasuna.
- d) Metodologiaren sendotasuna.
- e) Aurrekontua egokitzea eta finantzaketa eskema.

eta b) ataletan ezarritako irizpide bakoitzak % 30eko berariazko pisua izango du; c) atalean ezarritako irizpideak % 20ko berariazko pisua izango du; azkenik, d) eta e) ataletan ezarritako irizpide bakoitzak % 10eko berariazko pisua izango du.

Proiektu bat hautatu ahal izango da ebaluaketan guztira eskuratutako notak gehieneko guztizko notaren % 50a gainditzen duenean eta irizpideetako bakoitzean eskuratutako nota partikularrak dagokion gehieneko notaren % 40a gainditzen duenean.

Laguntzen ordainketa horien erakunde onuradunei ordainduko zaie zuzenean, ondotik zehaztutako moduan zatikaturik:

- a) Lehenengo urtekoari dagokion diru-laguntza zatiaren % 50 diru-laguntza emakidaren ebazpena jakinarazi eta berehala ordainduko da.
- b) Lehenengo urtekoaren gainerakoaren eta ondorengo urtekoen ordainketa dena delako urtekoari dagokion jarduera egin dela aldeztu aurretik justifikatzeari meneratuko zaio; baita finkatutako helburuen egikaritzea maila eta egindako gastua, zeinak gutxienez, emakida ebazpenean urteko bakoitzerako onartutako aurrekontuaren bolumena egin beharko duen. Agiri bidezko justifikazio hori amaitutako urtearen hurrengo lehenengo hiruhileko naturalean aurkeztu beharko da eta diru-laguntzaren ordainketa dokumentazio horren aurkezpen osoa egiten denetik aurrera hurrengo bi hilabeteetan gauzatuko da.

Behin justifikazioa adierazitako terminoetan egin ostean, aldi berean ordainduko dira justifikatutako urtekoari dagokion atala eta hurrengo urtekoaren % 50aren aurrerakina.

- c) Azken urtekoari dagokion % 50aren ordainketa aldeztu aurretik ekitaldi horretako jarduera egin izanaren azken likidazioa eta proiektua osotasunean bete izanaren egiaztagiria aurkeztuta gauzatuko da; horretarako, Oroitidazki tekniko eta ekonomikoa aurkeztuko dira eta nagusiki honako hauek jasoko ditu: gauzatutako ekintzak, eskuratutako emaitza zenbatetsi eta/edo balioztatuak, aldaketak, eta, kasua balitz, ziurtagiriak; jardueraren azken aurrekontua, gastuak urtekoen eta kontzeptuen arabera berezita; azpikontratatuarekin eta bereziki ZTBESekoekin izenpetutako kontratu, hitzarmen, akordio eta abar bete izanaren azken txostena; kontsorzioaren Nazioartekotze Planaren eguneratzea, bertan partaide diren erakundeek Europar



Batasuneko I+D Esparru Programan aurkeztutako proiektuen zerrenda aurkeztuz;  
Ondorioak, e.a.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak laguntzen onuradunei horien emakida-ebazpenarekin batera deskargua aurkezteko jarraibide orokorrak igortzen dizkie – Etorgai programa, eta bertan zehazten da deialdi bakoitzean egindako inbertsio eta gastuak justifikatzeko aurkeztu behar den dokumentazioa. Agiri honek adierazten du “erakunde onuradunek euren artxiboetan proiektuan esku hartzen duten ikerlari guztien ordutegi-parte guztiak eta deskargu ekonomikoan jasotako gastuen faktura eta ordainketa egiaztagiri guztiak jaso beharko dituztela”. Bestetik, diruz lagundutako kontzeptuak justifikatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau dela adierazten du:

- Bertako langileen kostua. Ordurik gehien kargatzen duen ikerlariaren ordutegi-parte eta kargatutako tarifarik altuenaren kalkuluaren xehapenezko banaketa, dagokion 10Trekin batera.
- Erabilitako baliabide eta ekipoen justifikazioan kargatutako kopuru handieneko amortizazioa. Kontularitzako ohar, faktura eta ordainketa egiaztagiriaren kopia.
- Kanpoko aholkularitzaren kostua Kopuru handieneko gastuaren faktura eta egiaztagiria.
- ZTBESeko eragileak azpikontratatzearen kostua. Kopuru handieneko gastuaren faktura eta egiaztagiria.
- Ustiaketa gastuak (materialak, bidaiak, e.a.). Kopuru handieneko gastuaren faktura eta egiaztagiria.

Diru-laguntza hauek kudeatzeko SPRI, S.A. erakunde kolaboratzaile izendatu da, EAEHONALTBrn 52. artikulua eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua betez, zeinak EAEren Aurrekontu Orokorren konturako Berme eta Diru-laguntzen Itzulketen Araubide Orokorra arautzen duen eta horren kudeaketan esku hartzen duten Erakunde Kolaboratzaileen betekizunak, araubidea eta obligazioak finkatzen dituen. SPRI, S.A.k, erakunde kolaboratzaile den aldetik, honako egiteko hauek hartuko ditu bere gain:

- a) Aurkeztutako eskabideen harrera eta hasierako ebaluazioa.
- b) Egindako proposamenen azterketa eta ebaluazioa.
- c) Ordainketa proposamena eta ikuskaritzen eskaera.
- d) Onartutako proiektuak kontrolatu eta jarraitzeko prozesuak definitu eta ezartzea.
- e) Eskuratutako emaitzen azken ebaluazioa.
- f) Programa zuzen kudeatzeko beharrezko izan daitekeen bestelako zeinahi jarduerarekin kolaboratu, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak adierazita.
- g) Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak egin dezakeen kudeaketari buruzko egiaztaketa jardueretara meneratu.

AFYPAIDA kontsortzioko lider den enpresaren jarduerak dagozkion Foru Dekretuetan lehenatasunezko izendatu ziren 2009-2012 ekitaldietan (biak barne) Arabako Lurralde

Historikoaren 16/2004 Foru Arauaren 29. artikulua ondo oinarriturik, Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarri buruzkoa; enpresa lider honek aurkeztutako oroitidazkietan jasoa dagoenaren arabera, “Hiriko” proiektuak bateriazko ibilgailu elektriko baten diseinua eta garapena aurkezten du, maniobragarritasun handikoa, tolesteko gaitasunduna, e.a., hiri eremuetan erabiltzeko. Ibilgailu honek dituen teknologia erronkak honako hauek dira:

- Moduluen araberako kontzeptua, frankiziatutako kontzesionarioetan munta daitezkeenak.
- Egitura - xasi tolesgarriaren eredu berria.
- Exoeskeleton bat, ibilgailua osatzen duen aluminiozko egitura bat, aldi berean funtzio estetiko, funtzional eta egiturazkoak betetzen dituela, bai barruan, bai kanpoan.
- Atzealdeko modulu bat, energia, atzeko ikusmen kamerak eta kontrol sistemak dituena; gainera, material arinez egina dago, eranskailuez lotuak eta kolpe eta kolapso testak gainditu beharko dituztenak.
- Kontrol elektronika aurreratukoa, ibilgailu hau bolante elektroniko bidez gidatzen da; norabidearen kudeaketa eta ibilgailuaren funtzionaltasun guztiak komunikazio sistema zuzenen bitartez garatzen dira, sistema mekanikoei esku hartu gabe.
- Trakzioa, norabidea eta esekidura gurpiletan integratzen dira eta mugikortasun kontzeptu berri bat garatzen du; indar-pare altuko “in Wheel” motor berria garatzea, 4 gurpil eragile eta zuzentzaileak dituena; ibilgailu honek hirian duen erabiltzeko eta mugitzeko gaitasuna erabatekoa da.
- Beira sistema berezia, energia jasotzeaz gain, ibilgailuaren segurtasun egituraren oinarritzeko atal direna. “Hiriko” kanpoaldean ia erabat beirazko ibilgailua da.
- Eta, azkenik, energia sistema aitzindaria, Ion-litiodun nano-fosforozko bateriak garatu eta txertatzen dituena, 12 minututan kargatzeko bide ematen dutenak, 120 km-ko autonomia eta soilik 96 kg-ko pisua duena.

“Hiriko” proiektua mugikortasun jasangarriko kontzeptu berri bat garatzera zuzendua dago, hiri ibilgailu elektriko oinarri duena eta MITeko (Massachusetts Institute of Technology) Smart Cities ekipoak garatutakoa; 3 urtetan (2010-2012) garatzeko I+G proiektua da. Proiektua Etorgaiek egindako 2010, 2011 eta 2012ko deialdietan aurkeztu da, deialdi bakoitzaren lehenengo urtekoa diruz lagunduz, ebaluatzaileek gomendagarritzat jo dutelako finantzaketa urtekoa izan dadila, proiektuan buru egiten duen taldea azaleratzen diren arazo teknikoei aurre egiteko gai dela egiaztatzearen. Proiektuaren egikaritza 2013ko martxora arte luzatu da.

Horrez gain, EAEko Enpresen eta Berrikuntza Zentroen (EBZ) bitartez babestutako proiektuetarako ekintzaileei babesa emateko neurrien “Ekintzaile” Programak 2011ko ekitaldian industriako edo elkarri lotutako zerbitzu izaera berritzailea duten enpresa proiektu berrietarako laguntzak aurreikusten ditu.



Erakunde onuradunei itzuli beharrik gabeko diru-laguntza SPRI, S.A. ren bitartez onartzen da, EBZk egiten duen txostenaren arabera, zeinak ordainketak administratzeko ardura duen proiektua abian jartzeko gastuak egin eta modu egokian justifikatzen diren heinean:

- Dedikazioa eta pertsona edo talde sustatzailea prestatzea (600 euro/hileko).
- Berariazko enpresa-prestakuntza.
- Aholkularitza gastuak eta kanpoko laguntza teknikoa.
- Azterketa eta dokumentazio lanak
- Azoka, bidaia eta abarretara joatea
- Maketa eta prototipoak egitea.
- Bestelakoak

Gure lana “Hiriko” proiektuari EAEren Administrazio Orokorrak Etorgai programaren bitartez emandako laguntzak berrikusi eta aztertzea izan da eta “Hiriko” rekin lotutako enpresa proiektuei SPRI, S.A. ren "Ekintzaile" programaren bitartez emandakoak; emakidan legea bete dela eta egindako inbertsio edo gastuak justifikatu direla egiaztatu dugu; baita, laguntza hauek jasotzetik eratorritako gainerako obligazioak ere.

## VI.2 EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

“Hiriko” proiektua enpresen kontsorzio batek garatu du eta horietako batek -AFYPAIDAK- hartu du, proiektuaren zuzendaritzan burutza.

Hona hemen Etorgai programaren 2010, 2011 eta 2012ko deialdietako bakoitzean EAEren Administrazio Orokorrak “Hiriko” proiektuari emandako diru-laguntza, justifikatutako aurrekontua eta ordaindutako diru-laguntza; baita, aurkeztu eta onartutako aurrekontua ere:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	2010	2011	2012	GUZTIRA
Aurkeztutako aurrekontua.....	11.332	9.948	4.320	25.600
Onartutako aurrekontua.....	1.984	2.120	2.267	6.371
Emandako diru-laguntza.....	817	906	927	2.650
Aurkeztutako justifikatutako aurrekontua.....	1.821	2.401	1.870	6.092
Aurkeztutako justifikatutako aurrekontua.....	1.796	2.230	1.474	5.500
Ordaindutako diru-laguntza.....	761	850	602	2.214
Ordaindutako diru-laguntzaren ehunekoa (*) .....	% 42,36	% 40,12	% 40,84	

(\*) Onartutako aurrekontu edo justifikatutako onartutakotik txikiaren gaineko %

### 2010eko deialdia

2010eko otsailaren 17ko Ebazpenak, Berrikuntza eta Teknologia sailburuordearenak, 2010eko ekitaldirako Etorgai programaren bitartez emango diren laguntzen deialdia argitaratu zuen. 2010eko abenduaren 21eko Ebazpenak, Teknologia zuzendariarenak,



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

aurkeztutako eskabideak ebazten ditu. Deialdi honetan “Hiriko” proiektuan enpresa parte-hartzaileen xehakapena honakoa da:

2010-EKO DEIALDIA		Euroak milakotan				
PROIEKTUAN PARTE-HARTZAILEAK	AURKEZT. PROIEKT.	ONARTUT. AURREK.	EMAND. DIRU-LAG.	JUSTIFIKAT. AURKEZT.	AURREK. ONART.	EGINDAKO ORDAINK.
AFYPAIDA.....	3.229	985	443	985	985	443
Celaya, Emparanza eta Galdós Internacional, S.A.	1.307	-	-	-	-	-
CIE Legazpi, S.A.....	684	-	-	-	-	-
CIE Mecauto, S.A. Pertsona bakarrekoa .....	684	-	-	-	-	-
CIE Udalbide, S.A.....	638	-	-	-	-	-
Guardian Llodio Uno S.L.U.....	929	503	151	316	316	95
Inyectametal, S.A.....	533	-	-	-	-	-
Microelectrónica Maser, S.L.....	2.063	496	223	520	495	223
Orbelan Plásticos, S.A.....	560	-	-	-	-	-
Transformaciones Metalúrgicas Norma, S.A.....	705	-	-	-	-	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.332</b>	<b>1.984</b>	<b>817</b>	<b>1.821</b>	<b>1.796</b>	<b>761</b>

Kontzeptuen araberako gastuaren xehakapena honakoa izan da:

2010-EKO DEIALDIA		Euroak milakotan			
KONTZEPTUA	AURREKONTUA		JUSTIFIKATUTAKO AURREKONTUA		
	AURKEZTUA	ONARTUA	AURKEZTUA	ONARTUA	
Ikerlari eta teknikarien kostua .....	4.721	548	544	539	
Kanpoko aholkularitzaren kostua.....	1.197	465	323	323	
Epsilon Euskadi.....			150	150	
Denokinn .....			80	80	
Launorte Sociedad de Proyectos .....			41	41	
Etud Iberica ABGAM.....			28	28	
Urrutiabe Ascoa 2000, S.L.U.....			17	17	
Land Infrared Limitec .....			7	7	
ZTBESko eragileak azpikontratatzearen kostua .....	2.296	488	511	501	
Tecnalia Fundazioa .....			408	403	
Tekniker Fundazioa.....			103	98	
Ustiapen gastuak .....	2.123	203	208	206	
Baliabide eta ekipoen kostua (amortizazioa).....	994	280	235	227	
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.332</b>	<b>1.984</b>	<b>1.821</b>	<b>1.796</b>	

### 2011ko deialdia

2010eko abenduaren 22ko Ebazpenak, Berrikuntza eta Teknologia sailburuordearenak, 2011ko ekitaldirako Etorgai programaren bitartez emango diren laguntzen deialdia argitaratu zuen. 2011ko azaroaren 30eko Ebazpenak, Teknologia zuzendariarenak, aurkeztutako eskabideak ebazten ditu. Deialdi honetan “Hiriko” proiektuan enpresa parte-hartzaileen xehakapena honakoa da:



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

2011ko deialdia	Euroak milakotan					
PROIEKTUAN PARTE-HARTZAILEAK	AURKEZT. PROIEKT.	ONARTUT. AURREK.	EMAND. DIRU-LAG.	JUSTIFIKAT. AURKEZT.	AURREK. ONART.	EGINDAKO ORDAINK.
AFYPAIDA.....	3.254	727	327	727	727	327
Basque Robot Wheels, S.L.....	1.573	191	86	191	191	86
Business Innovation Brokers, S. Coop.....	301	71	32	78	75	32
Forging Products Trading, S.L.....	673	174	70	256	245	69
Guardian Llodio Uno, S.L.U. ....	312	125	37	277	125	37
Indra Sistemas, S.A. ....	710	137	41	-	-	-
Inge-Innova Aeronautics, S.L. ....	413	96	43	149	149	43
Inge-Innova Automotive, S.L. ....	525	117	53	202	202	52
Ingeniería e Innovación Consultores de Gestión, S.L...	78	19	8	43	42	8
Microelectrónica Maser, S.L. ....	1.635	399	180	403	402	181
Talleres Mecánicos Arakistain, S.L. ....	474	64	29	75	72	15
<b>GUZTIRA</b>	<b>9.948</b>	<b>2.120</b>	<b>906</b>	<b>2.401</b>	<b>2.230</b>	<b>850</b>

Kontzeptuen araberako gastuaren xehakapena honakoa izan da:

2011ko deialdia	Euroak milakotan			
KONZEPYUA	AURREKONTUA		JUSTIFIKATUTAKO AURREKONTUA	
	AURKEZTUA	ONARTUA	AURKEZTUA	ONARTUA
Ikerlari eta teknikarien kostua .....	3.589	787	1.178	1.086
Kanpoko aholkularitzaren kostua .....	1.620	277	290	287
Etud Iberica .....			165	165
Denokinn .....			75	75
ABGAM.....			21	21
INTA.....			3	3
Valenciana.....			26	23
ZTBESko eragileak azpikontratatzearen kostua .....	2.049	488	416	403
Tecnalia Fundazioa .....			253	240
Tekniker Fundazioa.....			125	125
PID S.A. ....			38	38
Ustiapen gastuak .....	2.668	561	504	450
Baliabide eta ekipoen kostua (amortizazioa).....	22	7	13	4
<b>GUZTIRA</b>	<b>9.948</b>	<b>2.120</b>	<b>2.401</b>	<b>2.230</b>

## 2012ko deialdia

2011ko abenduaren 30Eko Ebazpenak, Berrikuntza eta Teknologia Sailburuordearenak, 2012ko ekitaldirako Etorgai programaren bitartez emango diren laguntzen deialdia argitaratu zuen. 2012ko urriaren 24ko Ebazpenak, Teknologia zuzendariarenak, aurkeztutako eskabideak ebatzen ditu. Deialdi honetan “Hiriko” proiektuan enpresa parte-hartzaileen xehakapena honakoa da:



2012ko deialdia	Euroak milakotan					
PROIEKTUAN PARTE-HARTZAILEAK	AURKEZT. PROIEKT.	ONARTUT. AURREK.	EMAND. DIRU-LAG.	JUSTIFIKAT. AURKEZT.	AURREK. ONART.	EGINDAKO ORDAINK.
AFYPAIDA.....	1.404	683	307	684	320	144
Basque Robot Wheels, S.L.....	1.076	532	240	176	176	79
Business Innovation Brokers S. Coop.....	169	100	45	107	107	45
Forging Products Trading, S.L.....	240	135	40	150	145	40
Inge-Innova Aeronautics, S.L.....	173	100	45	130	130	45
Inge-Innova Automotive, S.L.....	234	136	61	165	165	62
Ingeniería e Innovación Consultores de Gestión, S.L....	20	12	5	16	16	5
Microelectrónica Maser, S.L.....	634	362	163	358	358	161
Proyectos, instalaciones y montajes eléctricos, S.A. ....	72	46	21	84	57	21
Talleres Mecánicos Arakistain, S.L.....	298	162	-	-	-	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.320</b>	<b>2.267</b>	<b>927</b>	<b>1.870</b>	<b>1.474</b>	<b>602</b>

Kontzeptuen araberako gastuaren xehakapena honakoa izan da:

2012ko deialdia	Euroak milakotan			
KONTZEPTUA	AURREKONTUA		JUSTIFIKATUTAKO AURREKONTUA	
	AURKEZTUA	ONARTUA	AURKEZTUA	ONARTUA
Ikerlari eta teknikarien kostua .....	1.391	729	960	903
Kanpoko aholkularitzaren kostua.....	779	403	150	150
Etud Iberica .....			36	36
Denokinn .....			31	31
Armando de Sousa .....			54	54
FIDES.....			23	23
Beste batzuk.....			6	6
ZTBESko eragileak azpikontratatzearen kostua .....	874	500	196	126
Tecnalia Fundazioa .....			70	-
Tekniker Fundazioa.....			126	126
Ustiapen gastuak .....	1.265	628	563	294
Baliabide eta ekipoen kostua (amortizazioa).....	11	7	1	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.320</b>	<b>2.267</b>	<b>1.870</b>	<b>1.474</b>

Azkenik, AFYPAIDA eta Basque Robot Wheels-ek “Ekintzaile” programaren bitartez, EBZen bidez babestutako proiektuetarako ekintzaileei laguntza emateko neurrien “Ekintzaile” programaren bitartez 30.000 euroren diru-laguntza bana jaso dute, diruz lagungarri diren gastuen gehienezko mugari dagozkionak.

### VI.3 ONDORIOAK

SPRI, S.A. sozietateak, urte bakoitzean eskuratutako emaitzen ebaluatzaile denak, 2012ko ekitaldiaren ebaluazioan adierazi du “orokorrean, “Hiriko” proiektuak aurreikusitako helburuak lortu dituela, homologazio prozesua amaitzea eta ibilgailuaren ekoizpen industrialia abiaraztea gelditzen direla.“





Laguntzak eman eta egikaritzeko prozesuan gure lanetik eskuratutako ondorio nagusiak, honako hauek izan dira:

### EAEren Administrazio Orokorra

- Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren 3. artikulua, EAEren diru-laguntzen berme eta itzulketen araubide orokorra arautzen duenak, bermea eskatzeko obligazioa ezartzen du ordainketa aurreratua egiten direnean eta diru-laguntza edo laguntzaren zenbatekoa 30 milioi eurotik gorakoa denean (egun 180.000 euro). EAEren Administrazio Orokorrek ez ditu berme hauek eskatzen aurreratutako ordainketa 180.000 euro baino handiagoa ez denean. Proiektuan esku hartu duten ondoko parte-hartzaileek ez dute bermerik aurkeztu; horiei guztiei 180.000 euro baino diru-laguntza handiagoak eman zaizkie eta % 50a alde aurretik kobratu dute 180.000 euroak gainditu gabe.

		Euroak
PARTE HARTZAILEA	DEIALDIA	EMAND. DIR-LAG.
Microelectrónica Maser, S.L. ....	2010	222.966
AFYPAIDA .....	2011	326.943
AFYPAIDA .....	2012	307.492
Basque Robot Wheels, S.L. ....	2012	239.506
<b>GUZTIRA</b>		<b>1.096.907</b>

- EAEren Administrazio Orokorreko enpresen I+Gari laguntza emateko programen oinarri-arauek, zeinaren artean Etorgai programa dagoen, ez dute gauzatutako inbertsio eta gastu guztiak justifikatzeko eskatzen laguntzen norako zuzena egiaztatze gerora egiten den kontrolean. Izaera orokorrek eta diru-laguntza ematen duen sailak zehaztutako kopuru jakin batetik aurrera gomendagarria litzateke diru-laguntzaren onuradunak aurkezten duen ziurtagiri ekonomikoarekin batera kontuen auditore baten txostena aurkeztea; auditore horrek Kontabilitate eta Kontuen Auditoriako Institutuaren (ICAC) baitako Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean jarduneko modura izena emanda egon beharko du.

### ETORGAI programa

- Etorgai programa arautzen duen 2008ko abuztuaren 6ko Aginduaren 13. artikulua ebaluazio-irizpideak ezartzen ditu, "oinarrizko" izendatzen dituena eta dio "proiektu bat hautatu ahal izango dela ebaluazioan guztira eskuratutako notak gehieneko guztizko notaren % 50a gainditzen duenean eta irizpideetako bakoitzean eskuratutako nota partikularrak dagokion gehieneko notaren % 40a gainditzen duenean".

SPRI, S.A.ren Teknologia eta Berrikuntzako Unitate Estrategikoak Etorgai programaren proiektuak balio-neurtzeko enpresen I+G babesteko beste programa batzuentzat baliatu dituen prozedura berberak erabili ditu. Horretarako, "irizpide giltzarriak" eta "irizpide orokorrak" bereizten ditu eta irizpide giltzarrien nota partikularrean gutxieneko bat



eskuratzea soilik jotzen du beharrezkotzat. "Aurrekontuaren egokiera eta finantzaketa eskema" irizpidea irizpide orokortzat jo du Teknologia eta Berrikuntzako Unitate Estrategikoak. "Hiriko" proiektuak 2010 eta 2011ko deialdietan irizpide horretan eskuratutako nota partikularrak, guztizko notaren gainean % 10 egiten duenak, ez du dagokion gehieneko notaren % 40 egin.

### "Hiriko" Proiektuko berariazkoak

- Etorgai programa arautzen duten aginduek ezartzen dute "proiektu bakoitzeko gehienezko diru-laguntza, proiektuan diruz lagungarri diren gastuen % 40ra arte iritsi ahal izango dela." "Hiriko" proiektuari dagokionez ordaindutako diru-laguntzaren ehunekoa honakoa izan da:
  - 2010eko deialdian, diruz lagungarri ziren gastuen % 42,36.
  - 2011ko deialdian, diruz lagungarri ziren gastuen % 40,12.
  - 2012ko deialdian, diruz lagungarri ziren gastuen % 40,84.

### Beste alderdi batzuk

- "Hiriko" proiektuak aldaketak izan ditu kontsorzioan partaide ziren enpresen eta ZTBESaren kideen osieran. 2010ean parte hartzen zuten hamar enpresetatik zazpi proiektuan esku hartzeari uko egin zioten eta 2011ko ekitaldian beste zortzi enpresa gehitu ziren, gerora horietako batek utzi egingo zuen. 2012ko deialdian beste enpresa parte-hartzaileetako batek utzi zuen proiektua.
- 2012ko deialdian Basque Robot Wheels, S.L.k ez zuen justifikatu onartutako aurrekontua eta ekitaldi horretan AFYPAIDARI ez zitzaion justifikatutako aurrekontu osoa onartu eta biei diru-laguntza kendu eta itzultzeko espedientea abiarazi zitzaient, emandako diru-laguntzaren % 50 kobratzeko eskubidea galduz eta hurrenez hurren 40.351 eta 9.565 euroren zenbatekoa itzularaziz, diru-laguntzaren aurrerakinari zegozkionak. Txosten hau idatzi dugun datan, kopuru horiek itzultzeke daude.
- Azkenik, komeni da gogoraraztea EAEko Administrazio Orokorraren 2012ko Kontuaren txostenak "Barne kontrolerako sistemai eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak" III. atalean Etorgai programari buruz honako hau zioela:
  - Saileko oroitidazkiek ez dituzte adierazleak gehitzen, Etorgai programaren laguntzek eman diren sektoreetan izan duten eragina ez ezik, horien efikazia ere balio-neurtzea bideratuko dutenak.
  - Laguntza hauen deialdia Etorgai Programa arautzen duen Aginduaren 15.3 artikuluan ezarritako gehienezko epearekiko (6 hilabete) 4 hilabeteko atzerapenez ebatzi eta jakinarazi zaie interesdunei.

2010 eta 2011ko deialdietan egindako azterketan, arautegian ezarritako gehienezko epearekiko atzerapena 3,5 eta 5 hilabetekoa izan da, hurrenez hurren.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## **ALEGAZIOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN 2013. URTEKO FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI.**

### **I. SARRERA**

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2013. urteko fiskalizazioaren emaitzei erantzuteko eta otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 13. artikuluan xedatutakoa betetzeko asmoz osatu da txosten hau. Organo kudeatzaileek egin eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak bildutako alegazioak eta justifikazioak jaso dira txosten honetan.

### **II. IRITZIA**

#### **II.1 LEGEZKOTASUNAREN GAINEKO IRITZIA**

##### **II.1.1 Luzatutako kredituak**

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren iritzian, 2013ko aurrekontu luzatuek 107,1 milioi euroko ordainketa-kredituak ditu, luzatutako aurrekontuen %1 hain justu, eta horrek urratu egiten du EAETBko 128. artikulua.

Administrazio honek ezin du, inola ere, interpretazio hori ontzat eman, 128. artikulua horren interpretazio murriztailea egiten baitu Epaitegiak. Zehazki, artikulua horrek esaten du ez direla luzatutako kredituak, baldin eta "finantzatzen dituzten programak edo jarduerak ez baldin baziren ekitaldi luzatu horretan amaitzekoak".

Xedapen horren testuak koiuntura-izaerako gastuak edo inbertsioak adierazten dituela ulertu behar da, sailen jardueran aparteko ekintzen xede izan direnak, eta, ondorioz, ohikoa baino kreditu-zuzkidura handiagoa izan dutenak, edo aurreko urtean amaitutako aurrekontu-programei dagozkienak.

Horrela ez balitz, aurrekontuek xehetasunezko informazioa ematea zigortuko litzateke, eta kontuan izan behar da hori gertatzen dela kasu honetan. Gastuak eta inbertsioak, beste administrazio batzuek egiten duten moduan, aurrekontu-kontzeptuetan eta banakatu gabe aurkeztuko balira, Epaitegiak ez luke "haien izaeragatik luzaezinak" diren zuzkiduren aukerarik hautemango.

Gastuen egoera-orriak banan-banan azaltzen ditu inbertsioak, eraikuntzak, azterketak, lanak eta bestelako alderdiak, baina horrek ez du esan nahi bestelako inbertsio, eraikuntza, azterketa eta lanik egin ezin denik hurrengo urtean, baldin eta haiek sail bakoitzaren ohiko jarduera baldin badira.

Administrazio honen iritzian, luzapenari dagozkion doikuntzen ondorioz eguneratutako kredituek ez dituzte haien izaeragatik aurreko urtean bukatzekoak ziren jarduerak edo programak finantzatzen. Horrez gainera, ez litzateke Epaitegiak kritikatzeko dituen 107,1 milioiak luzatzeko premiarik, luzatutako kredituen guztizko zenbatekoa 10.528 milioi eurokoa baita eta diru-sarreraren aurrekontua, berriz, 9.837 milioikoa soilik. Hori horrela, 600



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

milioi euro inguruko kreditu-atxikitzeak egin behar izan ziren, hitzartutako egonkortasun-helburuak betetzeko.

Honela banakatzen da Epaitegiak adierazi duen zenbatekoa:

2 kapitulua – Funtzionamendu-gastuak	3,2 MM euro
4. eta 7. kapituluak – dirulaguntzak	44,9 MM euro
6. kapitulua – Inbertsioak	30,6 MM euro
8. kapitulua – Finantza-aktiboak	28,4 MM euro
GUZTIRA	107,1 MM euro

a) kapitulua – Funtzionamendu-gastuak: Soilik 0,6 milioi euro egikaritu ziren 3,2 milioi eurotatik, “2015 Agenda Digitala” aurrekontu-sail orokorrean.

b) eta 7. kapituluak – Dirulaguntzak: kreditu-atxikitzeak egin ziren, 11 milioikoak, 44,9 milioiko zenbatekotik. Aurreko urtean amaitu ezin ziren aurrekontu-sailletakoak dira gainerako kredituak. Bestalde, eman diren dirulaguntza zuzen gehienek ez zuten berariazko krediturik, kreditu orokor eta lotesleen kontura egikaritu baitziren.

c) kapitulua – Inbertsioak: kreditu-atxikitzeak egin ziren, 14 milioikoak, 30,6 milioiko zenbatekotik. Aurreko urtean amaitu ezin ziren aurrekontu-sailletakoak dira gainerako kredituak.

d) kapitulua – Finantza-aktiboak: Sektore publikoko erakundeen (VISESA, SPRI, EITB, APARKABISA eta beste erakunde batzuen) kapital-gehikuntzak edo sozietate-fondoan gehikuntzak dira, aurreko urtean amaitzekoak ez direnak.

## II.1.2 Gai kutsagarriak tratatzeko obra osagarriak Bilboko Mina del Morro eta Miraflores guneeetan dotazioko 72 etxebizitza egiteko sustapenean

Txostenean hau adierazten da: “proiektu osagarriak ez ditu betetzen 171.b artikulua (SPKLTB legekoa) publizitaterik gabeko prozedura negoziatua izapidetzeko baldintzak”.

Dotazioko 72 etxebizitzaren sustapen hori finkatutako hiri-lurzoruan da egitekoa, urbanizaziorik gabe, eta idatzitako proiektuak eta kontratuaren xedek bete egiten dituzte planeamendu-alderdiak, indarreko arau teknikoak eta gerora emandako obra-baimeneko baldintzak.

Lizitazio-oinarrietan eta, haren baitan, "proiektu-zorroztasuna" izeneko edukian adierazten dira lurzorua deskontaminazioaren alorrean izan ditzakeen intzidentziak, orubeko lurren balizko kontaminazioari dagozkionak.

Alde horretatik, kontuan izan behar da ustekabeko kausa ez dela, nabarmenki, kutsatutako lurzorua izatearen gaineko jakintza (Ihobe inbentarioa) eta izan behar duten tratamendu egokia, eta bai kontaminazio horren nolakoa eta indarreko arauen aplikazioa.

Hondeatze-lanak hasi ondoren, eta ez aurretik, izan daiteke datu horren berri, eta eraikuntza-proiektuko "aldi berean egitea hondeatzeko, zimenduak egiteko eta euste-ormak eraikitze lanak" atalean adierazten den moduan, hori baita bidea urbanizatutako orube baten egoera fisikoari egokituta gauzatzeko obren alderdi teknikoak eta ekonomikoak. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua, 171.b artikuluko (SPKLTB legekoa), ustekabeko egoera baten ondorioz erabili dela adieraztean, lurren kontaminazioaren norainokoaz ari da, bai bolumenari dagokionez, bai deskontaminazioari berari dagokionez, planeamenduaren amaierako erabileraren eta hondeatzearen emaitzaren berezko funtzioa den aldetik, eta hondakin eta lurzoru kontaminatuei buruzko araudiaren (22/2011 Legea, berrikusteko prozesuan) ondoriozkoa den aldetik. Aldatua izan da 2010eko abenduaren 30eko egikaritze-proiektuaren ikuskapen teknikoa egin ondoren.

Horrenbestez, ustekabeko kausa bat gertatu zen (kontaminazioaren norainoko teknika eta araubidekoa) material kutsagarriak tratatzeko obra osagarriak indarreko araubidearen eta publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez tramitatzeko premia sorrarazi zuena, Administrazioak kalte handiagorik izan ez zezan.

### **II.1.3 Laguntza-zerbitzua droga-mendekotasunak eta toxikomaniak dituzten pertsonentzat Gipuzkoako osasun-arloan**

Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak IZAN fundazioarekin ("Gizakia Helburu") zituen kontratatuta laguntza-prestazioko zerbitzu gehienak, 1990eko apirilaren 18an izenpetu zen hitzarmen baten ondorioz (1. eranskina).

Zerbitzu horren kontratazioa egungo araubidera egokitzeko eta prestazio berriak gehitzeko premia zegoenez, adierazitako kontratu hori egiteari ekin zitzaion.

Ikusita, alderdi tekniko eta sanitariotik, ezin zela eskaintzen lehiarik sustatu Gipuzkoako osasun-alorrean droga-mendekotasunak eta toxikomaniak dituzten pertsonen anbulatorioko eta barneratzeko erregimenetan tratamenduko eta errehabilitazioko laguntza-zerbitzuen eskaintzan, prozedura negoziatua zen, kasu horretan, esleitze-modu egokia.

Prozedura negoziatuan, beharrezkoa da, posible den heinean, kontratu-xedea betetzeko gai diren hiru enpresa gonbidatzea, eta, kasu honetan, ezin zen halakorik egin, prozedura negoziatua erabiltzearen arrazoia izan baita, hain justu, kontratu-xede horren izaera berariazkoa, beste ezein enpresaburuk gauzatu ezin duena.

### **II.1.4 Kontratazio-espeditenteak zatitzea edo ez tramitatzea**

Espeditenteak: 60, 61, 62, 63, 64.

Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko N°003S/2013; 004S/2013; 005S/2013; 006S/2013 eta 007S/2013 espeditenteak dira.

Esleipendunak bete beharrekoak zituen baldintza tekniko berariazkoen ondorioz mugatu zen, batik bat, hornidura-espeditenteetako kontratazio-modalitatea, eta horretatik gonbidatu zitzaizen prozesuan parte hartzera sektorean eskarmentua duten enpresa espezialista batzuei.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabili zen horietan guztietan, eta hiru enpresa gonbidatu ziren parte hartzera.

Jardunbideetan jasota dago enpresa bakarra aurkeztu zela ezarritako epean eta gonbidatu ziren beste bi enpresek berariaz egin ziotela uko aurkezteari. Haien kopia eranstean da 2. eranskinean.

## II.1.6 Dirulaguntza zuzenak

Epaimahaiak adierazi du ez dela justifikatu dirulaguntza zuzen jakin batzuetan ezinezkoa zenik deialdi publikoa egitea, eta alegazio hauek aurkezten dira alderdi horri dagokionez:

### 1.- BERC zentroak.

Gobernu Kontseiluak laguntza zuzen horiek emateko hartu zuen erabakiak berak eta erabaki horrek erantsita zeraman memoriak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak izenpetutakoak, adierazten dute interes sozial eta ekonomikoko arrazoi batzuek justifikatu zutela dirulaguntza horiek ematea; hala nola, Ikerbasque fundazioak eta BERC zentroek izaera estrategikoa izatea EAEko ikerketaren esparruan, eta ezinezkoa izan zela deialdia izaera orokorreko xedapen baten bidez egitea, jarduera espezializatua zelako eta lehiakiderik ez da dagoelako jarduera horiek egiteko.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak bultzatu du Ikerbasque fundazioa, ikertzaileak ekarri, mantendu eta finkatzearen bidez eta oinarritzko ikerketarako zentroen sorreraren bidez indartu dezan Zientziaren Euskal Sistema. Lan horren guztiaren kalitatea bermatzeko, hautatze-sistema konplexu bat erabiltzen du, eta Zientziaren Euskal Sistematik kanpoko ebaluazio-batzorde batek egiten ditu hautaketa horiek. Hogeita lau herrialdetako 120 ikerlarik osatzen dute batzorde hori, eta maila goreneko 7 katedradun ikerlarik koordinatzen dute hura.

Horregatik guztiagatik, Euskal Autonomia Erkidegoan ikerketa-lanak egiteko laguntza zuzen horiek eskuratzeko aukerak bermatzen du adierazitako helburuak beteko direla.

### 2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako ikastegiaren elkarketak Lehen Aukera-Lanbide Heziketa programa abian jartzeko.

Dirulaguntzak emateko erabakia izapidetzeko espedientean jasotako dokumentazioak adierazten duen moduan, Lehendakariak Confebaskekin, lanbide-heziketako ikastegi publikoen elkarteekin (IKASLAN) eta ekimen pribatua duten lanbide-heziketako ikastegi itunduen elkarteekin izenpetutako esparru-hitzarmen baten ondorioz egin zen hura. Hau adierazten du justifikazio-memoriak: "aparteko izaera eta interes publiko, sozial eta ekonomiko agerikoak ikusten dira, bai zer kolektiborekin lan egingo den ikusita, bai diruz laguntzen den proiektuaren berariazko helburuei erreparatuta. Lanbide-heziketako ikasketetan titulazioa eskuratu berri duten gazteen kolektiboa da hartzailea, eta kontuan izan behar da kolektibo horrek langabezia-tasa handia duela EAEn. Horrek justifikatzen du haiek laneratzeko jarduerak sustatzea, Europa 2020 Europako Enplegu Estrategiak



adierazten duenaren ildotik. Kolektibo horrek lanbide-esperientzia hartzea da diruz laguntzen den proiektuaren berariazko helburua, eta hori lortu nahi da praktikak eginez haien titulazioarekin lotutako lanpostuak dituzten enpresetan, haien lanbide-kualifikazioa hobetzeko neurria den aldetik. Era berean, sektore produktiboaren egiazko eskaerara gerturatuko da haien lanbide-profila eta jasotzen duten prestakuntza, eta, ondorioz, handitu egingo da haien enplegarritasuna, laneratzeko xedeari begira".

Era berean, arrazoi moduan adierazi zen ezinezkoa zela, izatez, deialdi arrunt bat egitea 2013. urte horretan geratzen zen denbora laburrean, baldin eta, premiak bultzatuta, hura amaitu baino lehen abiarazi nahi baldin baziren praktika-jarduerak. Lanbide-heziketako ikastegi publikoak eta pribatuak aintzat hartuta egin zen hori guztia, lortu nahi zen izaera orokor eta homogeneoa emateko neurri horri.

Jaurlaritzaren erabakiak berak adierazten zuen, era berean, pilotu-programaren emaitzak ebaluatuko zirela hura amaitzean, jarduerari jarraipena emango dion gerorako deialdi bat egitea bideragarria den ikusteko.

Eta, izatez, horrela izan da, LANBIDE erakunde autonomiadunak egin baititu, 2014 eta 2015 urteetan, jarduera horiek egiteko dirulaguntzen deialdi orokorrak.

### 3.- Inbiomed

Sektore-zentro berariazko eta berezia da Inbiomed, terapia genikora zuzendua, eta zelula ama helduen eta enbrioi-zelula birprogramatuen biologia ikertzen du biomedikuntzaren puntako arloetan. Funtsezkoa da hura babestea jakintza horri eusteko Euskadin. Haren bidez, ingurune klinikoarekiko sinergia indartzen dira eta traktore-eragina egiten da farmazia-industrian eta terapia aurreratueta.

Dirulaguntza zuzena eman zenean, ezin zen deialdi publikorik egin Inbiomedek egiten duen funtsezko ikerketa horri laguntzeko; izan ere, ezinezkoa zen, alde batetik, Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileei zuzendutako Etortek programak proiektu estrategikoei eskatzen dizkien lankidetzak-irizpideak betetzea, eta, bestetik, jakina zen ez dela 2014. urtetik aurrera deituko Saiotek programa, Zientziaren Euskal Sareko eragileen funtsezko ikerketa laguntzekoa.

### 4.- Tokikom, S.L.

Espedienteari erantsitako memoriak azaltzen zuen zergatik eman zen dirulaguntza eta zergatik ez zen erabili, hura emateko, indarreko deialdiren bat. Zehazki, Hedabideak-en deialdia ez zetorren bat dirulaguntza horren xedearekin, deialdi horrek komunikabide jakin batzuk laguntzen ziren diruz, eta dirulaguntza zuzen horren bidez Tokikom, S.L. sozietatearen jarduera arrunta laguntzen zen diruz. Erakunde multzo bat biltzen du sozietate horrek.

2015eko aurrekontuek dirulaguntza izendun bat dute ezarria Tokikom, S.L. sozietatearentzat.



### **III. BARNE-KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO OHARTARAZPENAK**

#### **III.1 AURREKONTUAK ETA KONTABILITATEA**

##### **3.1.1 Aurrekontu-luzapena. Programa berriak eta programen elkarketak**

Gobernu Kontseiluak berariazko baimenik eman ez baldin badu ere, aurrekontuen eskumena duen sailak ulertzen du Jaurlaritzak, EAEn 2013ko Aurrekontu Orokorren Lege Proiektua onartzean, isilbidez onartu zuela bi programa berri sortzea, "Harreman Institutuzionalak" eta "Justizia eta Giza Eskubideak" eta beste bi programa elkartzeko "Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoa" programan.

Jaurlaritzako sailen artean legegintzaldi honetarako ezarri den arlo-egitura berriaren ondorioa da hori guztia, eta aurrekontuen egokitzapen tekniko baten izaera du (EAETBko laugarren xedapen gehigarrian oinarrituta).

Beteta dagoela ulertzen da, era berean, Eusko Legebiltzarrari jakinarazteko betebeharra; izan ere, lege-proiektua bidali zen legebiltzarrean tramitatzeko, eta aurrekontuen eta urteko kontuen egikaritzari buruzko informazioa bidali da, eta, azken horren baitan, aurrekontu-programa horiei buruzko informazioa.

##### **3.1.2 Aurrekontu-luzapena. Konpromiso-kredituak**

Guztira 1.736,9 milioi euroko zenbatekoa zuten 2013. urtean luzatutako konpromiso-kredituek, eta, horietatik, 293,2 milioi soilik erabili ziren. Horixe adierazten du Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txosteneko A.18 atalak.

Hori horrela, luzatu eta erabili gabeko konpromiso-kredituen zenbatekoa 1.443,7 milioi eurotako da, hau da, Epaitegiaren iritzian modu akastunean luzatu diren konpromiso-kredituei dagoen guztizko zenbatekoa baino askoz ere handiagoa (784,8 milioi euro erakunde horren arabera).

##### **3.1.3 2014. urtean emandako dirulaguntzen erregistroa**

Adierazi da 2013ko aurrekontuan egikaritzean ez direla erregistratu Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren hiru dirulaguntzen ildo eta Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailaren sei dirulaguntzen sei ildo, eta adierazi behar dugu ez gaudela ados adierazpen horrekin, arrazoi hauengatik:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoan dirulaguntzen xedez gertatzen diren gastuak dirulaguntzak ematen diren unean erregistratzen dira, eta ordaindu behar den kredituari, ordainketako edo konpromisoko kredituari egokitutako aurrekontu-erregimena ezartzen zaie eta/edo dirulaguntzaren edo laguntzaren baldintzak egiaz betetzeko ezarri beharrekoa; betiere, EAETBko 111. artikulua arautzen duena beteta, 2013ko aurrekontuaren kitapenari egindako 1. OHARREAN adierazten den moduan.





- b) 2014. urtean eman ziren adierazi diren bederatzi dirulaguntzen ildo horiei dagozkien ebazpenak, eta ebazpen horietan egiazta daiteke hala izan zela, eta horregatik aitortu ziren haien gastuak urte horretan. 3. eranskinean jasotzen dira ebazpenen kopiak.
- c) Horrez gainera, 2014. urtean ziren galdagarriak ordainketa horiek eta urte horretan ordaindu zitzaizkien dirulaguntzak onuradunei.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak beti erabiltzen du irizpide hori ordainketak egiteko, eta ezin du bestela izan, horrela jokatu behar duela agintzen baitio betetzekoa duen lege-arauak.

### III.3 DIRULAGUNTZAK

#### 3.3.1 Dirulaguntza zuzenak

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 49.7 eta 49.9 artikuluek diote zuzeneko dirulaguntzei ezin izango zaiela aplikatu haiek emateko akordioen publizitatea. Horren ordez, horien berri eman behar zaio, sei hilean behin, Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeari.

Euskal Autonomia Erkidegoan ez da aplikatu behar Estatuko 38/2003 Legeak ezarritakoa, halaxe xedatu baita lege horren beraren hogeita bigarren xedapen gehigarrian.

#### 3.3.2 Dirulaguntza zuzenak

##### 1.- Lurraldearen, paisaiaren eta ondarearen katedra UPV/EHU.

Honako hau adierazi behar dugu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen artean lurraldearen, paisaiaren eta ondarearen katedra sortu, garatu eta sostengatzeko izenpetu zen lankidetzeta-hitzarmeneko 9. klausulak ezartzen duen konturako ordainketen erregimenari buruz:

Hitzarmen hori hiru urterako (2013-2015) dela adierazi behar da lehendabizi, eta, horrenbestez, hiru urte horietako ordainketa-modua aztertu behar da.

Hitzarmen hori 2013ko ekainaren 5ean izenpetu zen, eta ordainketa-modu hori aukeratzeko arrazoi nagusia izan zen Unibertsitateari nahikoa finantzazio ematea katedra 2013/2014 ikasturtean abian jar zezan.

Bestalde, hitzarmeneko klausula horrek arautu zuen ez zegoela gainerako ordainketetan (2014 eta 2015) aurreko urteetan justifikatutako zenbatekoetatik gorako diru-zenbatekorik; halaber, ordaindutakoaren eta justifikatuaren arteko gehieneko muga bat ezarri zen, 150.000 euro-koa.

Xedapen horren helburua zen katedra abian jarri, garatu eta sostengatzeko jarduerak ez etetea finantzazio-gabeziaren ondorioz.



## 2.- Lehen Aukera programa

- a) Dirulaguntzaren kitapenari erreparatuta, adierazi behar da dirulaguntza jaso zuten ikastegietako elkarrekin emandako egiaztagiriak aztertu zituela Prestakuntza eta Ikaskuntzako Zuzendaritzak, eta ez zuela osatu gabeko alderdirik ikusi agiri horietan. Horrenbestez, dirulaguntzen gaineko hitzarmenaren xedapenek adierazten dituzten ataletan justifikatutako gastuen kalifikazioan datza argitu beharreko auzia, irizpide desberdinak baitituzte horiei buruz Zuzendaritzako teknikariek eta Herri Kontuen Euskal Epaitegikoek. Adierazi behar da dirulaguntzaren zenbateko osoa 1.200.000 eurokoa izan zela; beraz, eman zen dirulaguntza osoaren ehuneko oso txiki baten gainekoa da justifikazio zuzenari buruzko eztabaida hori.
- b) Dirulaguntza onuradunen artean banatzeko irizpideari erreparatuta, kontuan izan behar da dirulaguntza hori esparru-hitzarmen baten ondorioz sortu zela. Hitzarmen hori Lehendakariak izenpetu zuen, Confebask-ekin, lanbide-heziketako ikastegi publikoetako zuzendarien elkarrekin (IKASLAN) eta lanbide-heziketako ikastegi pribatu itunduen elkarrekin (HETEL).

Sare publikoko eta pribatuko ikastegien ordezkari diren elkarrekin artean zati berdinetan banatu zen hura, Euskadin duten ezarpen orekatuari erreparatuta, eta hiru lurralde historikoen artean banatu zen, aintzat hartuta ikastegi publikoen ordezkari diren hiru elkarrekin bertaratu zirela hitzarmena lehendakariarekin izenpetzeko ekitaldira. Deialdia esperientzia pilotua izan zela nabarmendu zen, eta erregularizatu egin behar dela, haren garapena eta ezarpena ebaluatu ondoren.

## 3.- BERC zentroak

Zientzia Politikarako Zuzendaritzak onartu egin ditu aurkeztu diren faktura-zerrendak, laguntzaren justifikazio nahikoa direla adierazi baitu, baina, laguntza emateko erabakiaren laugarren erabaki-puntuak adierazten du erakunde onuradunaren finantza-egoerari buruzko auditoria-txosten bat aurkeztu behar dela oraindik.

## III.4 KONTRATAZIOA

### III.4.1 AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

#### 3., 5., 6., 7., 10. eta 13. ESPEDIENTE-ZENBAKIAK:

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak 2013. urteari buruz eman duen behin-behineko txostenak zenbait gai nabarmentzen ditu aurreko ekitaldietan esleitu diren espediente batzuen gainean, guztiak ere Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriko obrei buruzkoak. Zehazki, honako gai hauek zerrendatu ditu:

A.-*“Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriko Tolosa-Hernialde tartea 104,7 milioi eurotan esleitu da, eta ez da justifikatu aldaketa, 9,3 milioi eurokoa, ustekabeko edo gerora eratorritako arrazoien ondoriozkoa izan denik, eta urratu egiten da SPKLko 202. artikulua.”*



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*B.-“Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriko bost zatiren obrak 421,9 milioi euroko guztirako zenbatekoan esleitu ziren, eta obrak behin-behineko izaeraz jarraitzea baimendu zuen Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak, erreferentziazko obra horien proiektuetan egin beharreko aldaketak idatzi bitartean. 2013ko abenduaren 31n, ez dago jasota proiektuek eta aldaketa-espedienteek onarpen teknikoa jaso dutenik, eta horrek urratu egiten ditu SPKLTBeko 234.4 artikulua arautzen dituen epeak.”.*

Txostenak bi gai horiei buruz esaten direnak ikusi ondoren, ALEGAZIO hauek aurkezten zaizkie horietako bakoitzari:

*A) “Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriko Tolosa-Hernialde tartea 104,7 milioi eurotan esleitu da, eta ez da justifikatu aldaketa, 9,3 milioi eurokoa, ustekabeko edo gerora eratorritako arrazoien ondoriozkoa izan denik, eta urratu egiten da SPKLko 202. artikulua.”.*

Gaur egun indargabetuta dagoen arren, urriaren 30eko 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, zegoen indarrean kontratu hori, Tolosa-Hernialde tarteko obra zibila, lizitatu zenean, eta hauxe dio lege horren 202.1 artikulua: “(.....) kontratua perfektionatu ondoren, kontratazio-organoak interes publikoko arrazoiek bultzatuta eta ustekabeko egoerei aurre egiteko soilik egin ditzake aldaketak kontratuan, eta espedientean behar bezala justifikatu behar du aldaketa horien premia. Aldaketa horiek ezin izango diote eragin kontratuaren funtsezko baldintzei (.....)”.

Onartu den proiektu aldatuak behar bezala justifikatzen du aldaketaren premia, interes publikoko arrazoiengan eta ustekabeko egoeretan oinarrituta. Hauek dira arrazoi nabarmenenak:

### **Lehena.- Izapidetutako aldaketa justifikatu duten alderdi teknikoak.**

Tolosa-Hernialde trenbide-zatiko obren esleipendunarekin izenpetutako kontratua aldatzeko arrazoiak azaltzen hasi aurretik, "aldaketen" esparru juridikoa zehaztu behar da.

Tolosa-Hernialde trenbide-zatiko obren lizitazio-agirietan honako hau arautu zen, "aldaketak" izeneko atalean, kontratazio publikoaren alorrean indarrean dagoen araubidea zehazteko: “SPKLko 194., 195., 202. eta 217. artikuluek eta SPKLEO arauko 102. artikulua, 158. artikulua eta ondorengo artikuluek arautuko dituzte kontratuaren aldaketak, eta interes publiko arrazoiek bultzatuta eta ustekabeko egoerei aurre egiteko soilik egin daitezke, espedientean aldaketa horien premia justifikatu ondoren, eta indarreko arauak agintzen dituzten mugak eta prozedurak beteta”. Interes orokorraren konstituzio-printzipioa, Espainiako Konstituzioaren 103. artikulua ezarria, justifikatu behar da kontratuan aldaketak egiteko. Interesaren kontzeptu orokor hori ez da formalismo hutsa; aitzitik, kontratuaren aldaketa izapidetuko duen espedientean arrazoitu behar da eskakizun hori.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

“Interes publikoa” arrazoitzean, Europako kontratazio publikoaren informatzaile diren printzipioekin lotu behar da hura. 2004/18/EE zuzentarauko 2. artikulua arautzen ditu printzipio horiek. Haien baitan, esleitze-botereek berdintasunezko tratamendu ez-diskriminatzailea izan behar dute eta gardentasunez jokatu behar dute, bai kontratua esleitzeko fasean, bai kontratua betetzeko fasean. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak aitortu ditu printzipio horietako zenbait; esaterako, Europar Erkidegoetako Justizia Auzitegiak 2004ko apirilaren 29an eman zuen sententzia *Succhi di Frutta SpA* auzian. Sententziak bereziki azpimarratzen du *“tratu berdintasuneko eta gardentasuneko printzipioek kontratazio publikoan duten garrantzia, lizitatzailer guztiek haien eskaintzak berdintasunean egin behar dituztela agintzen baitute, eta, ondorioz, baldintza berberak bete behar dituztela lehiatzaile guztiek”*.

Hori horrela, esleipenduna hautatu ondoren lizitazioaren baldintza batzuk aldatzeko aukera izatea nahi baldin badu esleipena egiten duen erakundeak, berariaz adierazi behar du kontratua aldatzeko aukera izango dela eta zer modalitateetan egingo den hori., eta kasu honetan, lizitazio-agirietan behar bezala jaso zen aukera hori.

Hau adierazi du Estatu Kontseiluak irizpen batzuetan: *“..... errealitatearen ezagutza arrunt batetik abiatuta eta kontsultaren alorrean duen eskarmentuaren balorazio propioa egin ondoren, Estatu Kontseiluaren iritzia da, sentikortasunez, kontratu-harremanen baitan gertatzen direla horrelakoak, eta, zenbaitetan, moldakortasun apur batek mesede handiagoa egin diezaiokeela interes orokorrari zorrotasun hertsia baino, hura legearen interpretazio motz batean oinarritzen baldin bada eta arau-xedapen guztiek funtsezkoa duten helburuzko zentzua desitxuratzen baldin badu”*. Hala ere, ez da beti hura interes publikoa babesteko moduan ikusten hura, eta, horren haritik, honen garrantzia azpimarratzen du Estatu Kontseiluak: *“(.....) Administrazio kontratugileak tentu handiz jokatu behar du obra-proiektuak egitean, edo, kasuan kasu, haiek onartzean ..... horrela egin ezean, jardun-molde horiek izatez alda baitezakete egin nahi dituen obra-tipologiaren gainean administrazioak duen borondatea, eta beste proiektu bat era daiteke, beste kontratazio-espeditante bat beharko duena”*.

Hau arautzen du SPKLko 202. artikulua: *“Behin kontratua burututakoan, interes publikoko arrazoiengatik eta ezusteko kausei erantzuteko baino ezin izango du aldaketarik sartu kontratazio-organismoak kontratuan, eta espeditantean behar bezala justifikatu behar du. Aldaketa horiek ezin izango diote eragin kontratuaren funtsezko baldintzei. (...)”*. Arautze-ildo hori bera jorratzen dute kontratua lizitatu zenean indarrean ziren artikuluek: 217., 226., 233., 272. eta 282. artikulua.

Artikulu horiek sorrarazten dituzten galderak, eta, bereziki, 202. artikulua edukiari eta norainokoari buruzkoak, argitu dira zenbait irizpenetan; horietako bat da Estatuko Administrazioaren Kontratazio Batzordeak 2008ko uztailearen 28an eman zuen 43/08 irizpena, *“Aldaketak kontratuetan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 202. artikulua interpretazioa. (...)”*.

Irizpen horrek 202. artikulua arautzen dituen alderdiak aztertzen ditu.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

a) Lehenik eta behin, formula bat sortzeko eskatzen da, aldez aurretik zehaztuko dituen baldintzek duten funtsezko izaera, lege horren 202.1. artikulua lehen paragrafoak arautzen duenari erreparatuta. Legegileak, xedapen hori idaztean, "kontratuaren funtsezko baldintzak" esapidea erabili du. Kontzeptu juridiko zehaztugabe esaten zaie formulazio hori duten kontzeptuei, eta Kontu-hartzaitza Orokorrak bere kontsultan egoki adierazten duen moduan, zaila izaten da horien esanahia zehaztea. Alde horretatik, adierazi behar da bi prozedura balia daitezkeela xedapenak adierazten duen kontzeptu horren eduki-mugak zehazteko. Izaera orokorreko irizpideak finkatzea da balia daitekeen lehen prozedura, hau da, ikustea ea lizitatzailerik oso bestelako eskaintzak egingo lituzketen baldin eta lizitazio-iragarkian jaso izan balitz kontratuan egiten den aldaketa hori edo aztertzea kontratuaren xedea den prestazioaren izaera aldatzen ote duen kontratuan egiten den aldaketa horrek. Prozedura horiek erabiltzea, hala ere, ez da arazoaren konponbide zuzena, kontzeptua interpretatzeko erabiltzen diren terminoak kokapen-une batetik bestera aldatzera mugatzen baita. Izan ere, lehen prozedura erabiltzen denean, izaera subjektiboko judizio bat egin behar da lizitatzailerik, kontratuaren aldaketaren berri izanez gero, nola jokatu ote luketen zehazteko, eta, bigarren kasuan, prestazioaren izaeran aldaketak egiten ote diren ala ez zehazteko unera eramaten da kontzeptua zehazteko lantegia. Berez, arazoa da "kontzeptu juridiko zehaztugabe" hori bera dela egoeraren balorazio bat egiteko premia dakarrena kasu konkretu bakoitzean, kasu zehatz hori haren barruan sartzen den ala ez zehaztu edo erabakitzeke.

Horrenbestez, konponbide onargarri bakarra da egoera jakin batzuk zerrendatzea kontratuaren funtsezko baldintzak zein diren jakiteko, eta beste egoera edo kasu batzuekin sorraraz daitezkeen zalantzak argitzea. Zalantzarria da prozedura horren erabilgarritasuna, zaila baita, a priori, funtsezko izaera izan dezaketen kontratu-baldintzen zerrenda bat egitea. Bereziki, kontuan izan behar da kontratu-baldintza batzuek funtsezko izaera izan dezaketela kontratu-modalitate batean, baina, beste kontratu-motaren batean, akaso ez dutela izango funtsezko izaera hori. Are, izaera bereko kontratuetan, baldintza batzuek funtsezko izaera izango dute edo ez dute izaera hori izango, kontratuaren betebeharrak zehazten duten gainerako klausulen arabera.

b) Kontsultan adierazitako bigarren auzia da 202.1. artikuluko bigarren paragrafoak adierazten duen hasierako proiektuaren zuzenketa kontzeptuaren zentzua argitu behar dela. Batzordeak auzi horretan hartu duen erabakia da proiektuaren zuzenketa direla legearen ikuspegitik onargarriak direnak, xedapen horren beraren lehen paragrafoan arautzen diren eskakizunak betetzen dituztelako. Horrenbestez, kontratu-xedea zabaltzen baldin bada 202.1. artikuluko eskakizunak betetzen dituen proiektu-aldaketaren bat txertatu delako kontratuan, onargarri diren aldaketan legetratamendua izango dute aldaketa horiek. Bestalde, kontratu-aldaketak ez baldin baditu betetzen eskakizun horiek, aldaketa horrek ez du kontratu-aldaketaren izaera edukiko zentzu hertsian, eta modu berezian arautu beharko da. Egoera horietan, prozedura negoziatua bete daiteke, baldin eta 155 b) edo 158 b) artikuluek prestazio osagarrientzat arautzen dituen eskakizunak betetzen baldin dira.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

c) Kontu-hartzaitzak eskatutako hirugarren irizpena 202.2. artikulua interpretatzeko moduari buruzkoa da. Kasu honetan argitu behar den auzia da ea, artikulua horretan oinarrituta, legeak kontratuak aldatzeko aukerarik ematen ote duen haietan adierazitako baldintzetan, ala, aitzitik, agiriekin arau ditzaketan aldaketek bete egin behar ote dituzten 202.1. artikulua arautzen dituen eskakizunak. Auzi horren sorburua 202.2 artikulua xedapen hau da: "kontratua aldatzeko aukera eta aldaketa hori, aurreko paragrafoaren arabera, zein baldintzatan egin ahal izango den, klausula-agirietan eta kontratu-agirian jaso beharko da". Xedapen horrek "aurreko paragrafoaren arabera" esaten duenean, badirudi, itxura batean, artikulua lehen puntuan adierazten diren eskakizunak bete beharra agintzen diela agirietako aldaketa-moduei, edo, bestela esanda, aldaketa horiek egitekotan, interes publikoari erantzuteko egin behar direla, ustekabeko egoerei aurre egiteko eta kontratuaren funtsezko baldintzak erasan gabe. Interpretazio hori onartzen baldin bada, zentzurik gabeko egoera bat sortuko litzateke, baldintza-agirietan ustekabeko arrazoietan oinarritutako aldaketak soilik arau daitezkeela onartuko bailitzateke. Agerikoa da errotik baztertu behar dela interpretazio hori, absurdora baitarama. Hori horrela, Kontsulta Batzordeak ulertu du artikulua hori interpretatzeko hura justifikatzen duten aurrekariak hartu behar direla oinarritzat, eta, bestetik, harekin lortu nahi diren xedeak.

Lehendabiziko ikuspegi horretatik, agerikoa da Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren doktrina duela oinarri, eta, bereziki, "Succhi di Fruta" (C-496/99 P auzia) sententzia; izan ere, laburbilduz, printzipio hau ezartzen du sententzia horrek: "erakunde esleitzailak, arrazoi jakin batzuetan oinarrituta, lizitazioaren baldintzak aldatzeko aukera izan nahi baldin badu esleipenduna aukeratu ondoren, nahitaez ohartarazi behar ditu lizitazio-iragarkian, prozedura betetzeko esparrua ezartzen duen aldetik, lizitazioa egokitzeko aukera bera eta egokitzapen horrek izan ditzakeen modalitateak; horrenbestez, lizitazioan parte hartzeko interesa izan dezaketan enpresa guztiek hasieratik izan behar dute horren berri eta, ondorioz, baldintza berdinetan izan behar dute guztiek eskaintzak egiten dituzten unean". Hori irakurrita, ondorioztatzen behar da kontratazioaren baldintza-agirietan aurreikusi behar dela kontratu-klausulak aldatzeko aukera eta aldaketa horiek egiteko baldintzak. Era berean, hau adierazten du aipatu sententziak: "bestalde, erakunde esleitzailak ez baldin badu berariaz aurreikusi aukera hori eta hitzartu diren funtsezko modalitatea horietakoren batetik askatu nahi baldin badu kontratua esleitu ondorengo fasean, ez du baliozkoa izango hasieran hitzartu zirenetatik aparteko baldintzetan jarraitzea prozedurarekin". Beraz, ez baldin bada alde aurretik aurreikusi aldaketak egiteko aukera, ezin dira gerora aldatu kontratuaren funtsezko baldintzak.

Erabaki horiek eman direnez, adierazi dugun zentzu horretan interpretatu behar da aztertzen ari garen araua. Hau da, ez baldin bada alde aurretik arautu kontratuan aldaketa horiek egiteko aukera, hiru baldintza hauek betetzen dituzten aldaketak soilik egiteko aukera izango da:

- a) Interes publikoko beharrezko aldaketa izan behar du,
- b) behar bezala justifikatu behar da beharrezko hori espedientean, eta



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

c) aldaketek ez diote eragin behar kontratuaren funtsezko baldintzei.

Aitzitik, kontratu-agiriekin berariaz arautzen baldin badute klausula jakin batzuk aldatzeko aukera izango dela, nahikoa izango da zer baldintza diren eta nola alda daitezkeen adieraztea, kontuan izan gabe haiek kontratuaren funtsezko baldintzak diren ala ez. Eta hori egin daiteke alde aurretik jakingo dutelako lizitatuile guztiek aldaketak egin daitezkeela eta ez delako haien artean urratzen berdintasun-printzipioa eta haren ondoreneko den gardentasun-printzipioa. Interpretazio hori ematen baldin bazaio 202.2. artikuluari, egia da zaila dela, hasiera batean, “aurreko paragrafoaren arabera” esaldia ulertzea. Hala ere, esapidea osorik irakurriz gero: “zer baldintzetan egin daitezkeen aldaketa aurreko paragrafoaren arabera”, ondorioztatu behar dugu, artikulua horren gaineko doktrinarekin izan beharreko koherenziari eusteko, esaldi horren esanahia dela, aurreko paragrafoarekiko igorpena egiten duen neurrian, aldaketak interes publikoko beharrez erantzuteko egin behar direla eta kontratuan justifikatu behar dela, behar bezala, aldaketa egiteko beharrez hori. Hori horrela, argi geratzen da ez dela inondik inora baimentzen baldintzarik aldatzea kontratazio-organoak bere iritzira adierazitako arrazoiengatik (hau da, arrazoi arbitrarioengatik), baina kontratu-agrietan berariaz aurreikusitako baldin bada aldaketa, egin daitezke aldaketak, baita funtsezko baldintzenak ere.

Hori guztia esanda, kontratua SPKL arauaren eta haren 202. artikulua arabera aldatzeko izan ziren arrazoiak aztertuko ditugu orain:

- **Kanpaina geotekniko gehigarria:**

Normalean, obra-kontratuak kanpaina geotekniko gehigarri bat ezarri ohi du hura obra-fasean egiteko, une horretan izaten baita makineria egokia azertu beharrekoak izan eta irisgarritasun zaila duten lekuetara iristeko. Hala, igarotako geografia izaten da kontuan kanpaina horretan. Kanpaina hori egitean, ikusi zen oso ezaugarri geologiko konplexuak zeudela, hala nola, Triasaren sarbideak izan zitzaizketen eskualde-failak (lurzoru hedakorrak, anhidritaren modukoak, egon daitezkeela adieraz dezake horrek), litologia-ezaugarrien aldaketak eta mendigunearen egitura tolesduna, eta horrek aurreikusita zegoen kanpaina handitzeko premia eragin zuen, zehaztasun handiagoz eta errealitatekin ahalik eta gertuen ezartzeko obrak behar bezala egiteko behar ziren parametro geologiko eta geoteknikoak.

- **Sestraren doikuntza altxatuan:**

Trazaduran hondeatze-lanak egiteari ekitean, ezaugarri geotekniko kaltegarriak hauteman ziren. Horren ondorioz, ezin ziren proiektuan zehaztutako ezpondak egin, Arane inguruan desjabetutako lurren eskuragarritasunari erasan gabe. Horren ondorioz, zertxobait goratutako sestra bat zehaztu zen, eremu horretan oinplano-trazadurari eta ondoko tartetikiko loturei eutsita,. Irtenbide horrek, gainera, badu alderdi onuragarriak, murriztu



egiten baitira lur-mugimenduak eta ibilgailu astunen joan-etorriek bizilagunei egiten dizkieten kalteak eta soildu egiten da obrek linea elektrikoetan duten erasana.

- **Lurren datu geotekniko berrietara egokitzea tunelen euskarriak:**

Proiektuak zehaztutako sekzioak eta kanpaina geotekniko gehigarriko datuak aztertu ondoren, eguneratutako interpretazio geologiko eta geoteknikora egokitu dira irtenbideak; hala, zehaztu diren euskarriak hobeto egokitzen dira zeharkatzekoak diren lurretara eta ahokatzekak optimizatu dira.

Halaber, baldintza teknikoaren agirian finkatutako neurketa eta ordainketako irizpideen arabera aztertu dira tuneletako gain hondeatzeetako betelanak.

- **Minan tunela egitea Araneko tunel artifizialaren ordez:**

Lurraren malkarrari erreparatuta, Araneko tunel izunean lan egiteko eremura sartzeko bidea egin ondoren, kanpaina geotekniko gehigarriak hauteman zuen lurzoru - haitzeko ukitze-profila oso aldagarria zela, eta horrek kezka handia sortzen zuen, zalantzarikoa baitzen proiektuan zehaztu ziren altuera handiko ezpondak (50 metro ingurukoak) egingarriak izango ote ziren.

Horregatik guztiagatik, 1+604 eta 1+810 PK bitartean dagoen Araneko tunel izunaren ordez Minan tunel bat egitea proposatzen da, ingurumen-integrazioa hobetzeko eta nabarmen murrizteko linea elektrikoekiko erasanak, lur-mugimenduak eta trafiko astunak bizilagunei sortzen dituen eragozpenak.

- **Ustiatze-gasean dagoen trenbide-sarearen mantentze-lanen hobekuntza**

ADIF erakundeak ezarritako irizpideak kontuan izanda, bi aldaketa egin dira ustiapenaren kostuak murrizteko trenbide-sarea abian jartzen denerako; hala, biaduktuen tipologia eta eraikitze-sistema aldatu eta bideak plakan duen azpiegiturako irtenbidea egokitu da. Haien eraikitze-metodoa aldatuta, ez da nahitaezkoa tunel artifizialak hondeatzea biaduktuak egiteko, eta irtenbide hori bateragarria da Minan tunelak egiteko adostu zen aldaketarekin.

- **Partikularrekin eta erakunde publikoekin lankidetzan egokitzea sarbideak eta zortasunak:**

Orografia oso malkarreko eremuan egin behar ziren obrak, eta, ondorioz, zaila izan zen haien bideren batekin uztartzea, trazaduraren ezaugarriek nabarmen baldintzatzen baitzuten bide horren trazadura. Eremuaren topografia obran bertan egiaztatuta ondoren, orokorrean aldatu behar izan ziren plataformarako eta obrarako sarbideen zehaztapen geometrikoak eta behin-behineko saihasbideak. Horren ondorioz, berriro zehaztu behar izan ziren euste-hormak, saneamenduak, drainatzeak, euskarrien egokitzapenak eta ezponden babesak, eraiste-lanak eta beste alderdi asko.





Horrez gainera, eragindako erakunde eskudunek interes publikoko xede nabarmenez egindako eskakizun teknikoak barneratu ziren, eta horrek baldintzatu egin zuen gerora proiektuaren gauzapena.

- **Larrialdiko galeria gehigarria Aldaba Txikiko tunelean:**

Galerien banaketa aldatu da Tolosa eta Tolosa-Hernialde tarteen komuna duten tunelean, Europa zeharkatzen duten trenbide arrunt eta abiadura handiko trenbide-sistemen (ETIS) operazio bateragarritasunerako jarraibide teknikoak betetzeko. Aldaketa horrek afekzio-lotura kendu dio N-I errepidean dagoen REPSOL zerbitzuguneari, eta ez da jarriko, beraz, jarduera ekonomikoaren kalteengatiko erreklamaziorik obren kontratazioaren ondoren.

Azaldutako arrazoiak egoera geologikoekin, geoteknikoekin, ingurumenarekin eta segurtasun-alderdiekin daude loturik, baita eguneratze teknikoekin ere, eguneratze horiek egin behar izan baitira lanak hobetu eta egokitzeko, zaila baita haiek doitasunez zehaztea obren proiektua egitean; beraz, ezusteko kausak direla esan daiteke, eta, obrak behar bezala egingo direla bermatzeko, kontratazio-organoak esku hartu behar duela, kontratua proposatu den bezala eta interes orokorra kontuan izanda aldatzeko.

### **Bigarrena.- Tramitazio jarraitua aldatutako proiektuan.**

Era berean, gogoratu behar da agindutako obra hau tramitatzeko garaian, badirela kontratazio-organoak egiten duenaz bestelako prozedurari, Euskadiko Administrazio Orokorrak gain, Trenbidez Azpiegituren Administrazioaileak ere baduelako parte-hartzerik egiteko horretan. Zehazki, jarraian azalduko ditugunak izan ziren 1. aldaketa onartzeko tramiteak, kontuan izanda espedientea onartu eta berrikusi zutela parte hartzeak ziren estamentuek, egin zen tramitazioan ikus daitekeen moduan:

- Tolosa-Hernialde tartea aldatzeko proiektua idazteko baimena ADIF erakundera bidali zen 2011ko irailaren 30ean.
- Aldaketa idazteko baimena eman zuen ADIF erakundeak 2011ko azaroaren 8an.
- Obren Zuzendaritzak, 2011ko abenduaren 2an, ADIF erakundera bidali zuen proiektuaren aldaketa, berrikusteko.
- *ADIF erakundeak behin-behineko onarpena eman zion aldetari 2012ko martxoaren 29an*, beharrekoa baita jendurreko informazioaren izapidea betetzeko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, arautzen duena betez eta behar bezala beteta Nahitaezko Desjabetzearen Legeak, 1954ko abenduaren 16koak, okupazio-beharrizanari buruz 18. artikuluan eta 19.1. artikuluan eta lege horren erregelamenduko artikuluko parekoek araututakoa.
- ADIF erakundeak, 2012ko maiatzaren 31n, Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriaren plataformarako Eraikuntza Proiektu Aldatuak eragindako ondasunen eta eskubideen zerrenda bidali zuen. Tartea: Tolosa- Hernialde tartekoa Tolosa, Hernialde eta Ibarako udalei, eta jendurreko erakusketaren ziurtagiria eskatu zuen.



- ADIF erakundeak, 2012ko maiatzaren 31ko dataz, Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriaren plataformako eraikuntza-proiektuaren aldaketak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda bidali zuen. Tarte: Tolosa- Hernialde tartekoa Gobernuaren Ordezkariordeztara.
- 2012ko ekainaren 23an, ADIF erakundeak, Nahitaezko Desjabetzearen Legeko 18. eta 19.1. artikuluek agintzen dutena betez, jendaurreko informazioari dagokion iragarki-oharra argitaratu zuen Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE), 150. zenbakia, eta 2012ko ekainaren 28an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO), 123. zenbakia. Horrez gainera, 2012ko ekainaren 28an, El Diario Vasco egunkarian argitaratu zuen.
- Aldatutako proiektuan sortzen dituen eragin berriei dagozkien nahitaezko izapideak egin ondoren, *ADIF erakundeak behin betiko onartu zuen hura*, 2012ko abuztuaren 29ko dataz.
- Aldaketaren onarpena jakinarazten dio ETSk Eusko Jaurlaritzari 2012ko irailaren 27an.
- Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak ALDEKO txosten juridikoa eman zuen 2012ko abenduaren 11n.
- Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Ekonomia Kontroleko Bulegoak, 2013ko apirilaren 30ean, Eusko Jaurlaritzak Tolosa-Hernialde tarteko kontratuaren lehen aldaketako gastu-baimenaren inguruan egindako erabaki-proposamenari dagokion txostena eman zuen, eta hauxe adierazi zuen: “espedientea tramitatzen jarrai daiteke, baldin eta egoki irizten baldin badio hura proposatzen duen Sailak”.
- Eusko Jaurlaritzak 2013ko ekainaren 28ko ebazpenaren bidez onartu zuen proiektu aldatua.

B) *“Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriaren bost tarteren obrak, guztira 421,9 milioi eurotan esleituak izan ondoren, behin-behineko izaeraz egiten jarraitzea baimendu zuen Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak, obra horiei dagozkien proiektuen aldaketak idazten ziren bitartean. 2013ko abenduaren 31n, ez dago jasota proiektuek eta aldaketa-espedienteek onarpen teknikoa jaso dutenik, eta horrek urratu egiten ditu SPKLTBeko 234.4 artikuluek arautzen dituen epeak.”.*

**Lehen.- Lankidetz-esparrua, Sustapen Ministerioaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Trenbide Azpiegituren Administrazioaren artean, hitzartutako akordioaren eta Administrazio eskatzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berria eraikitze finkatutako eskakizunen baitan.**

*1.1.- Lankidetz-hitzarmena, Sustapen Ministerioaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Administrador de Infraestructuras*



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*Ferroviarias erakundearen artean, Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berria eraikitzeke zenbait jarduketaren gomendiorako.*

2006ko apirilaren 24an, Espainiako Gobernuko Sustapen ministroak, Euskal Autonomia Erkidegoko Garraio eta Herri Lanen sailburuak eta ADIF (Administrador de Infraestructuras Ferroviarias) erakundeke presidentek hitzarmen hau izenpetu zuten, 2006ko ekainaren 8an argitaratu zena EHAA aldizkarian: “LANKIDETZA-HITZARMENA, SUSTAPEN MINISTERIOAREN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA TRENBIDE AZPIEGITUREN ADMINISTRATZAILEAREN ARTEAN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TRENBIDE SARE BERRIA ERAIKITZEKO ZENBAIT JARDUKETAREN GOMENDIORAKO”.

Adierazpen-zatian, hauxe esaten da, EHAA horretan irakur daitekeen moduan, II. puntuan: “II. Sustapen Ministerioko Azpiegituren Estatu Idazkaritzaren 2001eko azaroaren 27ko Ebazpenaren bidez, Gestor de Infraestructuras Ferroviarias erakundeari (GIF) agindu zitzaion Gasteiz-Bilbao-Donostia abiadura handiko trenbidea eraikitzeke proiektuak idazteko. Gainera, Ministro Kontseiluaren 2002ko abenduaren 20ko Akordioaren bitartez, GIF-en esku utzi zen Iparra/Iparmendebaldea korridorearen barruan Euskal Autonomia Erkidegoko abiadura handiko trenbidea eraiki eta administratzeko lana”.

Eta hauxe adierazten da III. puntuan:

“ADIFen estatutua onartzen duen abenduaren 30eko 2395/2004 Errege Dekretuaren xedapen gehigarrietan hirugarrenak ezartzen duenez, “Errege Dekretu hori indarrean jarri aurretik trenbideak eraiki eta administratzeko GIFen esku utzitako eskumenak eta egindako gomendioak, hortik aurrera ADIFen esku egongo bailira hartu beharko dira (...)”.

“(...) Bestetik, Azpiegituren eta Plangintzaren Estatu idazkariaren 2005eko apirilaren 14ko Ebazpenaren bidez, ADIFeko lehendakariaren esku utzi ziren GIFi gomendiotan emandako trenbide-azpiegituretarako proiektuak onartu eta aldatzeko eskumenak.”

Hitzarmen horren I. eranskineko lehen klausulan adierazten da hitzarmenaren xedea dela “Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berriaren Gipuzkoako adarreko eraikuntza-proiektuak idatzi, obrak zuzendu, obrak kontratatu eta egin, eta desjabetze-espedienteen administrazio-kudeaketan elkarlanean jarduteko ardura Sustapen Ministerioak eta Administrador de Infraestructuras Ferroviariasek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari gomendiotan ematea eta gomendio horren baldintzak ezartzea”.

Era berean, hauxe adierazten da I. ERANSKIN horretako bigarren klausularen laugarren puntuan: “INFORMAZIO-AZTERLANAK ETA PROIEKTUAK IDAZTEA”:

“4.- Edonola ere, eraikuntza-proiektuak eta horien aldaketak gainbegiratu eta onartzea Sustapen Ministerioko organo eskudunari dagokio”



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Eta hau adierazten du *bosgarren klausulak*: “2006ko apirilaren 24an izenpetutako esparru-hitzarmenaren 2.3 klausulan aurreikusitakoari jarraituz, batzorde tekniko bat sortzen da; batzordea Sustapen Ministerioak izendatutako hiru kidek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Garraio eta Herri Lan Sailak izendatutako beste hiruk osatuko dute.”

“...Batzordearen egitekoak:

.....e) *Proiektuak eta obrak egokitzeko proposamenak prestatzea, Sustapen Ministerioak onar ditzan.*”

1.2.- *Lankidetzeta-hitzarmena, Sustapen Ministerioaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Administración de Infraestructuras Ferroviarias erakundearen artean, Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berria eraikitzeke zenbait jarduketaren gomendiorako.*

Hau arautzen du 11/2006 Ebazpenak, SUSTAPEN MINISTERIOAREN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA ADIF-EN (ADMINISTRADOR DE INFRAESTRUCTURAS FERROVIARIAS) ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN TRENBIDE-SARE BERRIA ERAIKITZEKO ZENBAIT JARDUKETAREN GOMENDIORAKO EMANDAKOAK, II. ERANSKINAREN bigarren klausulako 5. puntuan: “*Eraikuntza-proiektu eta aldaketa guztiak Sustapen Ministerioko organo eskudunak onartu beharko ditu*”.

Halaber, hau arautzen du V. klausulako 2. puntuan: “*Eusko Jaurjaritzak Bergara-Irun Gipuzkoako adarreko obrak kontratatuko ditu, bai eta Donostia-San Sebastiánen sartzeko bidegunekoak ere.*”

1.3.- “*ADIF erakundeak baliatuko dituen prozedurak proiektuak onartu eta obrak egiteko jarduketetan*” eta haren hirugarren eranskina: “*Proiektuen aldaketak, obra osagarrien proiektuak eta zerbitzu bereziak berrezartzeko proiektuak ikuskatu eta onartzeko prozedura*”, Batzorde Teknikoak agindutakoa (aldeek izenpetutako hitzarmenek eratzen dute organo hori).

Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriko jardueren jarraipenerako Batzorde Teknikoak, Bergara-Irun tartea, “ADIF-EK PROIEKTUAK ONARTZEKO ETA OBRAK EGITEKO JARDUKETETARAKO PROZEDURA” ezarri zuen. Haren azken bertsioa 2012ko urrikoa da, eta prozedura hori ezartzen duen agiriaren 1. orrialdean zehazten du haren helburua dela aurrez azaldu diren erantzukizunak betetzea; hala, “*ADIF-ek jarduketa hauek egingo ditu, Laguntza Teknikoen babesarekin*”:

“.... 4. *Proiektuen aldaketak eta obra osagarrien proiektuak ikuskatu eta onartzea, III. Eranskinak arautzen duen moduan.*”.

III. eranskin horrek “PROIEKTUEN ALDAKETAK, OBRA OSAGARRIEN PROIEKTUAK ETA ZERBITZU BEREZIEN BEREZIAK BERREZARTZEKO PROIEKTUAK IKUSKATU ETA ONARTZEKO PROZEDURA”, izena du eta haren

2. puntuak, “Proiektu-aldaketaren eta obra osagarrietako proiektuen ikuskapen eta onarpen teknikoa” izenekoak, adierazten du, ingurumen-berrikuspeneko txostena egin ondoren, hau egingo dela: *“Obra Zuzendaritzak ADIF-en Kalitate, Segurtasun eta Ikuskapeneko Alboko Zuzendariordetzara bidaliko du proiektuaren aldaketa edo obra osagarrien proiektu osoa eta ingurumen-berrikuspeneko txostena (bi ale paperean eta bi euskarri digitalean, PDF formatuan). ADIF-en Kalitate, Segurtasun eta Ikuskapeneko Alboko Zuzendariordetzak euskarri digitaleko kopia bat igorriko du ADIF-en Ingurumen Zuzendariordetzara, haren berri izan dezan eta egoki iritzitako oharra egin ditzan.”*

*“...Zuzenketen fasea amaitzen denean, Obra Zuzendaritzak ADIF-en Kalitate, Segurtasun eta Ikuskapeneko Alboko Zuzendariordetzara bidaliko du behin betiko proiektua, PDF formatuan, Obra Zuzendaritzako txostenarekin batera (...).”*

*“ADIF-en Kalitate, Segurtasun eta Ikuskapeneko Alboko Zuzendariordetzak ADIF-en Ingurumen Zuzendariordetzara bidaliko du Ingurumen Integrazioko Eranskinaren behin betiko alea (euskarri digitalean eta PDF formatuan), Obrako Ingurumen Zuzendaritzak egindako ingurumen-berrikuspeneko txostenarekin batera, Ingurumen Inpaktuko Deklaraziora egokitzearen txostena eman dezan.*

*ADIF-en Kalitate, Segurtasun eta Ikuskapeneko Alboko Zuzendariordetzak Ikuskapen Txostena egingo du eta proiektuaren aldaketa edo obra osagarrien proiektua onartzeko proposamena idatziko du, ADIF-ek onar dezan. ADIF-en Kalitate, Segurtasun eta Ikuskapeneko Alboko Zuzendariordetzak Euskal Autonomia Erkidegoko Garraio eta Herri Lanen Sailera edo Euskal Trenbide Sarera igorriko du onarpen hori.”*

Labur azalduta, ADIF erakundeak, Sustapen Ministerioak, Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoak, aurrez azaldutako proiektuak onartu eta betetzeko, sekuentzia hau bete behar dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriko espedienteak izapidetzean:

1. Proiektu-aldaketa edo obra osagarrien proiektua idazteko baimen-eskaera.
2. ADIF erakundearen Kalitate, Segurtasun eta Ikuskapenerako Alboko Zuzendariordetzaren berrikuspen-txostena.
3. Proiektua idazteko baimena, ADIF erakundeak emandakoa.
4. Behin-behinean eteteko edo jarraitzeko eskaera, Eusko Jaurlaritzak (kontratazio-organoa) baimendu edo ezetsi dezakeena.
5. Proposamen teknikoa idaztea.
6. ADIF erakundearen Kalitate, Segurtasun eta Ikuskapenerako Zuzendariordetzaren behin-behineko onarpena.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

7. Beharrezkoa baldin bada, ukitutako ondasun eta eskubideen zerrendaren jendaurreko erakustaldiko prozedura.
8. Ondasun eta eskubideen zerrendari egindako alegazioak aztertze txostena, ADIFek egindakoa.
9. Ikuskapen-txostena eta onarpen-proposamena, ADIF erakundearen Kalitate, Segurtasun eta Ikuskapenerako Zuzendariordetzak egindakoak.
10. ADIFek proiektuaren onarpen teknikoa ematea.
11. Eusko Jaurlaritzako kontratazio-organoak espedientea onartzea.

Ez badute ADIF erakundeak eta Estatuko Administrazio Orokorrak parte hartzen espediente horiek izapidetzeko prozesuan, sekuentzia hau beteko da, botere esleitzailerok normalean egin beharrekoa:

1. Proiektu-aldaketa edo obra osagarrien proiektua idazteko baimen-eskaera eta behin-behinean eten edo jarraitzeko eskaera.
2. Proiektua idazteko baimena eta behin-behinean eteteko edo jarraitzeko baimena.
3. Proposamen teknikoa idaztea.
4. Beharrezkoa baldin bada, ukitutako ondasun eta eskubideen zerrendaren jendaurreko erakustaldiko prozedura.
5. Ondasunen eta eskubideen zerrendari egindako alegazioak aztertze txostena.
6. Espedientearen onarpena.

Horrek guztiak agerian uzten du Eusko Jaurlaritzak, kontratazio-organo gisa jardutean, ezin duela bermatu kontratazio publikoaren alorrean indarrean dauden xedapenek arautzen dituzten epeak beteko dituela.

**Bigarrena.- Konklusioak, gomendio-egilearen eta gomendio-hartzailearen artean sortutako lankidetzaz-esparruaren baitan, eta hartutako konpromisoak betetzeko prozedurak.**

Hitzarmen eta prozedurako egoera atipiko hori administrazioaren kontrol bikoitzaren adierazle dela uler daiteke, berme handiagokoa, administrazio batek baino gehiagok parte hartzen baitu proiektuak eta obrak berak ikuskatzen; egoera horrek, ordea, luzatu egiten ditu izapidetze-epeak. Izan ere, hamaika izapide egin behar izaten dira, ohiko tramitazio batean eta zentzu hertsian egin behar izaten diren sei tramiteen aldean. Hori horrela izanda, kontratazio-organoak ezin du bermatu SPKLTBko 234.4. artikulua arautzen dituen nahitaezko epeak beteko dituenik, harengandik kanpoko beste administrazio batek egin beharreko gestioek baldintzatuta jarduten baitu.



Euskal Trenbide Sareak, obra-zuzendaritzen arduraduna den aldetik, eta Eusko Jaurlaritzak, obren gomendio bidezko sustatzailea den aldetik, behin eta berriz idatzi diote ADIF Alta Velocidad-eko Ikuskapen, Kalitate, Segurtasun eta Osasun zuzendariordeari, Sustapen Ministerioiko Plangintza eta Proiektuen zuzendariorde orokorrari eta Sustapen Ministerioiko Azpiegituren idazkari orokorrari, hitzarmenean adierazten diren izapideei eta baimenei lehentasuna eman eta haiek arin ditzaten, SPKLTBko 234.4 artikulua arautzen duena betetzeko. Eskaera horiek, era berean, hitzarmeneko batzorde teknikoaren bileretara eta hitzarmenaren jarraipena egiteko batzordeen bileretara eraman dira, baina, orain bitartean Sustapen Ministerioak eta ADIF erakundeak ez dute mekanismorik jarri abian, erreferentziatzeko lege-xedapen horrek arautzen dituen epeak beteko direla ziurtatzeko.

Horregatik guztiagatik, aurkeztu diren ALEGAZIOAK aintzat hartuta, honako hau ulertzen da:

LEHENA.- Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriaren Tolosa-Hernialde tarteko obretan, 104,7 milioi eurotan esleituak, behar bezala justifikatuta geratu da egin den aldaketa, 9,3 milioi euroko zenbatekoa duena, interes publikoko arrazoietan oinarrituta eta ustekabeko egoerei aurre egiteko egin baita, SPKLko 202. artikulua arautzen duen moduan.

BIGARRENA.- Egia da Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriaren bost tartetan, guztira 421,9 milioi euroko zenbatekoan esleituak izan direnetan, obrak behin-behinean jarraitzeko baimena eman zuela Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak, tarte horiei dagozkien obren proiektu-aldaketak idazten ziren bitarteko, baina 2013ko abenduaren 31n, ez da egiaztatu proiektuen onarpen teknikoa gauzatu denik eta aldaketa-espedituek onartu direnik; beraz, urratu egin dira SPKLTBko 234.4. artikulua arautzen dituen epeak. Hori guztia gertatu da ADIF erakundeak eta Sustapen Ministerioak tramitazio paralelo bat ezarri diotelako kontratazio publikoko araubideak botere esleitzailari ezartzen dion izapidetzeari, eta horrek atzerapenak eragin ditu.

## 16. ESP.:

